

uk

177. zenbakia / 2010eko ekainaren 14a



Atzeko jesarlekua
estreinatu
aurretik...

Praktika ezazu!



Hemen dituzu
gidabaimena euskaraz
ateratzen lagunduko dituzten
Uribe Kostako autoeskolak:

ERANDIO

- > GAZTEDI AUTOESKOLA
• Trabudu kalea, 3 T. 94 467 39 33
- > ERANDIO AUTOESKOLA
• Ibaña kalea, 10 T. 94 467 21 09
- > ALTZAGA AUTOESKOLA
• San Jeronimo kalea, 16 T. 94 655 84 44
- > ARIAS AUTOESKOLA
• Fundacion Jado kalea, 19 T. 94 467 10 35
- > ASTRABUDUA AUTOESKOLA
• Consulado de Bilbao kalea, 9
T. 94 467 54 98

GETXO

- > ALGORTA AUTOESKOLA
• Andres Cortina kalea, 6 T. 94 460 94 43
- > AMEZTI AUTOESKOLA
• Amezti kalea, 9 T. 94 491 09 15
- > ARIAS AUTOESKOLA
• Mesedoretako kalea, 29 T. 94 463 88 57
- Bidezabal kalea, 14 T. 94 430 11 44
- Gobelgurre kalea, 13 T. 94 463 00 19
- > GETXO AUTOESKOLA
• Salsidu kalea, 20 T. 94 430 25 71
- > PREGIADO AUTOESKOLA
• Makaleta etor, 83 T. 651 961 901
- > SAN INAZIO AUTOESKOLA
• Telletxe kalea, 13 T. 94 460 00 45
- > URIBE KOSTA AUTOESKOLA
• Urkiola kalea, 4 T. 94 430 06 05

URIBE KOSTA

- PLENTZIA
- > URIBE KOSTA AUTOESKOLA
• Portaleta kalea, 11 T. 94 677 02 06
- SOPELA
- > KAIKU AUTOESKOLA
• Sipiñi kalea, 4 T. 94 676 70 71
- > SOPELANA AUTOESKOLA
• Serutxa kalea, 6 T. 94 676 03 40
- > URIBE KOSTA AUTOESKOLA
• Laubide kalea, 2 T. 94 676 48 39
- URDULIZ
- > KAIKU AUTOESKOLA
• Gobela kalea, 3 T. 94 676 68 68

Azterketa teorikoa euskaraz egiten duen gazteei:
 • **klase praktiko bat doan!**
 • Europen zehar ibiltzeko interrail bidai baten
 zozketan parte hartzeko aukera

Gidabaimena
euskaraz

L



OHARRA: Bizkaian, azterketa teorikoa nahiz azterketa praktikoa egite daitezke euskaraz. Bizkaiko Trafiko Zuzendaritzan 3 aztertzailer euskaldun dabilta eta, eskatuz gero, azterketa praktikoa euskaraz egiteko aukera dago.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
 HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
 ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
 AHOLKULARIA: Jokin Aspuru
 ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberoa Iturburu,
 Maitane Nerekan
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola,
 Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
 KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
 FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko
 herri aldizkari eta euskara elkarte
 Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

TRATU TXARRAREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111	Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Getxoko Artisanatza Azoka 2010.
- LEHEN ETA ORAIN. Arluze, Getxo.
- TALAIJA. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Vanesa Llorente.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
- AGENDA.

SAKONEAN

- ALBUMA. *Dinosauroen parkea.*
- ARGAZKIA. Jesus Maguregi atezaina, argazki zaharra.
- BERBETAN. Elixabet Aizager.
- FOTOGRAFIA. Iزارo Glez. Ieregi.

KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Kimuak programarako deialdia.
- MUSIKA. Malagasy Gospel-en emanaldia Getxon.
- LIBURUAK. *100x100korniki* erakusketa Bilboko Alondegian.
- KIROLAK. Kirol kanpusak Getxon.
- ELKARRIZKETA. Fauna Basatia Sendatzeko Zentroa, Gorliz.

AMAITZEKO

- NORA JOAN. Katilu taberna, Algorta.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Algortar laguntzaidea Elorriko bankuan, 1957.
- AITORMENAK. Mikel Unzurrunzaga, *DJ Makala*.

Azala: Iزارo Glez. Ieregi



30 Elixabet Aizager

Berbetan

Euskal Herria Zuzenean (EHZ)
 festibaleko eta elkarte
 lehendakariagaz egon gara berbetan



11 Vanesa Llorente



54 Mikel Unzurrunzaga

MÉGANE EMOTION
 85cv dCi
10.600€*



1.000€-ko
 deskontua
 aukerako edozein
 ibilgailu
 erostean**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO

RENAULT
 OCASIÓN

* PSP transferentzi gastuak baina. Ikusaraziko eta eskaintzako bertsioak desberdinak izan daitezke. ** 10 urte baino gehiagoko kotxea urtean.

BILBO BERRI BIZKERRE, 3. GETXO. TELÉFONO: 94 430 68 81 www.bilboberri.com



Leihatila

> Pedro García Larragan

Israel

Zer gertatzen ari da Ekialde Hurbilean delako munduko esparru horretan? Israel erruduna da. Baina, bakarra ote? Palestinarrak laguntzeko itsas konboia eraso du Israelgo Armadak. Sarraskia barriro ere. Hildakoak eta zaurituak ezin legezdu. Ez dago aitzakiarik. Hori argi da. Hala ere, Israelen alde aritu gura nuke gaurko honetan. Ez bere gobernuaren basakeriak justifikatzeko. Israelgo gizarteak baizik. Hiritarrek eta politikoak berdinak ez direlako, eta judutur asko eta asko, gero eta gehiago esango nuke, palestinarrak bakean bizitzeko prest dagoelako. Palestinarrak prest egongo lirakeke? Bada, kontua da ez dakigula. Ez dugula ezagutzen palestinaren iritzi publikorik. Israeldarrena bai. Ziurrenik, Ekialde Hurbila dagoen mundu arlo horretan, demokrazia bakarra delako. Ez dago besterik. Ez Egipton, ez Jordanian, ez Sirian, ...ezta Palestinan ere. Ez dira demokraziak. Israelgo legebiltzarrean palestinarrak diputatu baten eta judutar ultra beste diputatu baten liskarra ikusi ahal izan dugu. Munduko telebista denetan zabaldu da. Non daude Israelegaz bakean bizitzeko prest dauden Palestinako diputatuak? Horrek zer pentsatua ematen dit.

Iritzia

Palestina-Israel gatazkari buruz eta horretan, nazioarteko erakundeek daukaten jokaerari buruz idatzi du Eneko Calle gazte sopoloztarrak.

Legez kanpo

Gaza ekialde hurbileko zerura irekita dagoen kartzela bihurtu da bertan bizirautean duten 1'5 milio palestinarentzat. 360Km koadroko lur-eremuan bizi den populazioaren %80 errefuxiatuak dira, gaur Israel delako estatuak suntsitu eta okupatutako herrietan jaiotakoak.

Esan bezala, 2007.

«Europar Batasuna blokeo horren erantzule da»

urtean Palestinako Hamas alderdi islamiarrek hauteskundeak irabazi zituenean, Israeliek eta Nazioarteko Komunitateak Gazaren kontrako blokeo ekonomiko bortitza ezarri zuten. Blokeoak oinarritzko elikagai eta materialak Gazan sartzeko debekua ezartzen du baita, Hamasek kontrolatutako Gazako gobernuarentzat dirulaguntzak ematea ere. Blokeo honek eta 2008 urte amaieran Israeliek Gazako palestinarrak kontra burututako eraso militarrek -1400 palestinarrak hil ziren eta 5303 zauritu- egoera humanitario larrian utzi ditu Gazako biztanleak; populazioa-

ren %77 langabezian dago eta %70ek ez dauka ur edangarririk; %88 pobrezia absolutuan bizi da.

Azken asteetan, euskal biztanle askok ahaztuta zeukaten gatazka berriz ere albigietako titularretan agertu da; ez da harritzekoa, izan ere, esan dudana bezala, Palestinako apartheid eta genozidioa amaitu ez delako. Baina oraingoan, Israeliek, Europar Batasunak eta Amerikako Estatu Batuek onartzen dioten beste eskumen bat erakutsi digu: 50 nazionalitate ezberdinetako giza-eskubide eta bakearen aldeko ekintzaileak zihoazen ontziak eraso, bahitu eta 9 ekintzaile hil zituen. Ekintzaile hauek laguntza humanitarioa zeramatzen Gazara, itsasoz, blokeoa apurtzeko asmoz.

Ekintza honek mundu osoa astindu du, baina Israelen kontrako gaitzespena ez da horren zorrotza izan. Nazio Batuek eta Europar Batasunak ez du Israel gaitzetsi ezta salatu ere, eta blokeoaren amaiera eskatzen duten arren, jakin behar dugu, Europar Batasuna blokeo horren erantzule dela 2007. urtetik. Gure elkartetik nazioarteko ekintzaileen kontrako eraso salatzeko dugu eta aldi berean, gure gobernuari Israelekin dituzten akordio ekonomiko guztiak bertan beheran uzteko agintzen diegu; bestela, gero eta ozenago luzatuko diegu euskal herritarrei Palestinako erakunde ezberdinetatik hasita Israelen estatuaren kontrako boikot kanpaina; boikot hau ekonomikoa (Israelen egindako produktuak), kulturala (Noa abeslaria, Maymaná), kirolena (Maccabi Tel Aviv) eta akademikoa izan daiteke. Israelgo gobernuari modu baketsuan presioa egiteko tresna dugu eta Hegoafrikako apartheid sistemarekin bukatzeko eraginkorra izan zen. Zergatik ez da izango Palestinan? Herritarrek boikot kanpainara gehituz eta Israel baztertuz ez al dugu lortuko Israeliek okupazioari amaiera jartzea eta Nazioarteko Zuzenbidea errespetatzea?

Eneko Calle

(Bakea eta Duintasuna Elkarte)



AREETA, MAIAZAREN 2008

Kolpez kolpe/ Lan eta lan aritu ziren Getxoko Eskulagintza Azokan maiatzaren azken asteburuan. Aurten 83 artisauk jarri du postua, eta Udalaren arabera, 50.000 bat lagun hurbildu da horietatik. Ohiko zita daukate garai horretan Areetan eta erakustaldi asko ikus daitezke, argazki honetan moduan: burdinezko hostoari forma ematen ari zaizkio artisau bi. Gainera, lehiaketak ere egin ohi dituzte. Diseinuan, Bizkaiko Artola Biologikoa egurrezko tailuen eta musika tresnen tailerrak irabazi zuten, eta stand lehiaketari dagokionez, Erandioko Juan Carlos de Diegoren beira tailerrak. O / Argazkia: Asier Mentxaka

gu geu**Txupina jaurti arren...**

Jaiak heldu dira Uribe Kostara. Egia esan, aspaldi heldu ziren edo, hobe esanda, sekula ez dira joan. Aurreko zenbakietan Erandioko auzoetako zein Getxoko sanisidroak izan ditugu gure orrietan. Baina, orain, udagaz batera heltzen diren jai handiak ditugu: Sopelako sanpedroak, Leioako sanjuanak... Erromeria edo punk kontzertua, umeentzako jolasak zein tortilla txapelketak... aukera zure esku dago, guztietan ondo pasatzeko aukera duzu eta. Horretarako, gogor egiten dute behar Jai Batzordeetako lagunek, jaien aurretik, bitartean zein ostean. Hemendik animo eta indar guztia eurentzat; lan ederra egiten duzue!

Hala ere, udan giroa epeldu eta feromonen dantzak burua Martera eroaten badigu ere, bada, arrazoi bategatik zein besteagatik, ospakizunetarako gogorik ez duenik. Erandioko zenbait lagun adibidez, kutsaduraren kontrako 1969ko protestetan indar polizialen aldetik pairatutako kalteak (lagun bi akatu zituen) direla eta, Frankismoaren biktimak direla ofizialki onartzea gura dute. Elkarte ekologistek barriz, Uribe Kosta- Butro Biotopo Babestua izendatzeko eskaera luzatu diote Eusko Jaurlaritzari.

Txupina jaurti arren dena ez da parranda gurean.

UK-ko lantaldea

Zabaldu euskararen atea

El euskera llama a tu puerta



Haxe da aurreztu dezakezuna zure establezimenduan enrotoak, planak eta ibilgailu komertzialak euskaraz jartzen badituzu

%50 gehienez 300 euro, euskaraz hutsaz jartzen baduzu.

%30 gehienez 180 euro, euskarazko testuak lehenetsuna bada.

Si instalas en euskera los rótulos, toldos o vehículos comerciales de tu establecimiento **mira lo que te puedes ahorrar:**

50% hasta un máximo de 300€, si lo haces sólo en euskera.

30% hasta un máximo de 180€, si es con preferencia al euskera.

Getxoko enpresa hauetan enka dezakenu zure errotoak, leheneko seietan, gainera, deskontu gehigarria eragoz dizuzte.

%10 enka deskontu gehigarria euskaraz jartzen baduzu.

%5 enka euskaraz eta gutulak jartzen baduzu.

TOLDOS Y PERSIANAS MURGUIA

RÓTULOS PUBLIARTE

CIANOPLAN

ULI ARTE PERSIANAS

LA REPRO

KALKO

KISER

AMETS

RÓTULOS ARRILUCE

DESCONTU GEHIGARRIA ERAGOZTU ABERRIAN

Podrás solicitar el rótulo en cualquiera de las siguientes empresas de Getxo, en las 6 primeras, además, te harán un descuento adicional:

10% más de descuento si es en euskera.

5% más si es en bilingüe.

HIZIANTZA: 94 415 22 52 / 94 466 00 10/11

94 415 22 52
getxi@getxo.net

GETXOKO ENPRETA EUSKARA ZERBITZUA / SERVICIO DE EUSKARA DEL AYTO. DE GETXO

94 466 00 10/11
euskara.zerbitzua@getxo.net
www.getxo.net

[lehen]



[orain]



Iraganez doa denbora* beti / ARRILUZE

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > pailazoa



Leioako Umore Azoka, 2010eko maiatza

Testua: **Katxo Larrazabal**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Pailazoari bizkarra_eman ez hori ez al da delitu zelan liteke gure artista baldintza_ho(r)ietan aritu; axolagabe ez ditu utzi guztiak dira harritu, baina ez dute begiratu nahi buelta eman (e)ta aditu; beragaz barrez lehertzen zirenak orain lotsarazten ditu.

2

Txikitan barre egingo zuten horixe dago_oso argi gozatzen zuten pailazoa_hasi ezkerre kontu-kontari; astia-igaro egingo zuten ezin eutsiz barreari, jada_ ez dituzte sentimenduak erakusten hain nabari sekula ere ez zaio utzi behar haur izateari.

3

Mundu hon(e)tara etorri ginen haurran kontzientziakin geure barruan bilatuz gero aurkituko dugu arin; lantzean irten behar da kalera sudur gorritxoarekin aurreiritziak aparte_utzita pailazoarena egin, geure buruaz barre eginez besteei barre eragin.

* Doinua: Mutil koxkor bat...

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti! uk@aldizkaria.biz


euskara > ikastaro trinkoak eskainiko ditu Uribe Kostako AEK-k udan



Informazio gehiago eta izena emateko: www.aek.org

Mihi puntan geratzen zaizkigun hitzei azken bultzada emateko aukera eskainiko du AEK-k udan, dagoeneko plazaratu dute udako eskaintza, “*Mihi puntan duzu*” lelopean. Uribe Kostan bertan ikastaro trinkoak emango dituzte: hilabete iraungo dute, egunean 5 ordu, 100 guztira; uztailetik irailera bitartean izango dira. Gainera, barnetegi eskaintza zabala prestatu dute, Euskal Herri mailakoa. Hamabost egun iraungo dute eta hainbat motatakoak izango dira: tokikoak, ibiltariak, familientzako eta jarduera barnetegiak. Gainera, xiberotar euskalkia ikasteko barnetegia ere egingo dute Zuberoan. Telefonoz eta internetez eman daiteke izena (902362294 edo www.aek.org), edo AEK-ren euskaltegietan ekainean (Algorta, Leioa, Plentzia edo Gorliz). Uztailan, barriz, Algortako euskaltegian zentralizatuko dituzte ikastaroak. Utzi konplexuak albo batera, eta uda honetan, atera egizu mihi puntan duzuna, ez zaizu damutuko. ○

getxo > erakusketa aretoa zabaldu dute Torrene kalean



Bosteko 2010 erakusketak inauguratu du Torrene aretoa

Torrene erakustaretoa zabaldu dute Algortan, arte erakusketak edo beste motatakoak egiteko dauden ekipamenduak osatuz. Getxoko Kultur Etxearen esku dago aretoa eta 487.500 euro inbertitu dute. Udalerriko hirigunetik gertu eta gune estrategikoan kokatuta dago. BBK-ri erosi dio lokala Udalak, eta erakusketa aretoaz gain, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra HAPOren bulegoa aldi baterako ezartzeko gunea gorde dute. *Bosteko 2010* pintura erakusketa ibiltariak inauguratu du aretoa, baina beste hainbat erakusketa hartuko ditu aurrean: *Getxo eta itsasoa* Rafa Aspiunzaren argazki erakusketa, “Sea Week-Itsas Astea”, Komiki Aretoa-INAEM eta *Getxophoto*. Azken horrek hainbat ediziotan erabili izan du Torrene aretoa azken urteotan. ○

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...hamia

...lehengo garaia...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / T.F. (+34) 943 140 143

[talaia]

sopelana > XII. Patxi Ros Saria Lasterketa Nudista, ekainaren 26an



Parte hartzeko mezua bidali carreranudista@ene-naturismo.org helbide elektronikora

Udagaz batera iritsi ohi da lasterketa nudista. Erantzi eta korrika egitera! Patxi Ros Saria da eta ekainaren 26an egingo dute, zapatuan, 12:00etan Barinatxe hondartzan. ENE Euskal Naturista Elkarteak antolatu du. Helduentzako ibilbideak 5.000 metro luze izango ditu, baina umeek ere parte har dezakete. Sei maila egongo da parte hartzeko: emakumeak, gizonak, beteranoak (40 urtetik gorakoak) eta umeak (14 urtetik beherakoak). Gainera, ENEko naturistentzako beste maila bi egongo da: emakumeak eta gizonak. Patxi Ros kirol eta naturismo zaleak sortu zuen lasterketa nudista 1999an, eta 2003an, Patxi Ros Saria izenagaz bataiatu zuen Euskal Naturista Elkarteak, haren lana aitortzeko. Lasterketan parte hartzeko ekainaren 24ra arte eman daiteke izena, carreranudista@ene-naturismo.org helbidera mezua bidaliz. Halere, egunean bertan ere izena eman ahalko da, 11:30 baino lehen. Doan da. ○

kultura > Aizpea Goenagak zuzenduko du Etxepare Institutua



2009an sortu zuen Etxepare Institutua Eusko Jaurlaritzak

Etxepare Euskal Institutua zuzenduko du Aizpea Goenaga antzezle, idazle, gidoilari eta zinegile ezagunak, eta horrenbestez, elkartearen hasierako bidean gidatuko du. 2009ko urtarrilaren 9an hasi zuen bere jarduna Institutuak, “euskara eta euskal kulturaren kanpo zabalpenerako tresna” gisa. “Euskara eta euskal kulturaren mundu zabalpena” du helburu, baina orain arte, barne eztabaidan eta bere zereginak eta norabidea finkatzen ibili da. Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailari atxikitako berezko gaitasuna eta izaera juridikoa duen zuzenbide pribatuko herri erakundea da Institutua. Beraz, bere gain hartuko ditu lehendik Jaurlaritzak zuzenean lantzen dituen hizkuntza eta kultura alorreko kanpo zabalpenerako lanak, eta aurrerantzean, horien eta egitasmo barrien garapenez arduratuko da. ○

[erretratua]



“Jaiak inoiz baino gehiago gozatuko ditugu”

Vanesa Llorente > Ugeraga nesken futbol taldeko kapitaina

Gora San Pedro jaiak! Hori oihukatzen amaituko dute ziur asko Sopolako Ugeraga futbol taldeko neskek, hilaren 25ean, txupina jaurtitzan dutenean. Eurak dira aurtengo jaiak hasiera emateaz arduratuko direnak. Vanesa Llorente taldeko kapitaina izan da azken bederatzi urteotan. 1995etik, taldea sortu zenetik, dabil Ugeragan: “Taldea zaharrena naiz”. Pozik dago aurtengo emaitzagaz; izan ere, lehenengo mailara igotzea lortu dute: “Denboraldi amaieran erabaki da dena, bigarren itzulian. Elorrioko taldeagaz buorrokan ibili behar izan gara”. Hurrengo denboraldian maila mantendu gura du Llorentek. Kirola egiteko aukera emateaz gain, lagun koadrila ederra eman dio futbolak: “Jendeagaz gustura banago, zertarako aldatu?”. Txupinera izateko proposamena gogoz hartu du taldeak: “Jaiak inoiz baino gehiago gozatuko ditugu, beste modu batean bizitzeko aukera emango digu; jendeak ezagutuko gaitu”. Kirolaria izan arren, parrandarako astia era badu futbolariak: “Denboraldia maiatzean bukatu zen eta abuztu amaiera arte ez da berriro hasiko; beraz, uda topera!”. Kirolean bazterketa sexistak ematen da oraindik, aurrerapausoak ikusi badira ere: “Gero eta gehiago izaten gaituzte kontuan: material hobetuz eman, partidua gura dugunean jartzeko aukera... lehen ez ziguten kasurik egiten. Hala ere, talde nagusia gizonena da oraindik”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Jalgi hadi plaza barrituetara

Ekainean zehar Algortako elkartoki garrantzitsu bi **barritzen hasiko** da Udala, **Borobia eta Geltokia plazak**; Algortako erdigunetik Azkorriara doan **bidegorria** egingo dute

Ekainean zehar hasiko dira Algortako Geltokia plaza eta Bidezabalgo Borobia plaza barritzeko lanak. 2.000.000 eurotik gora bideratuko du Udalak plazak barritzera. Argiztapena hobetu eta lurpeko edukiontzia jartzeaz gain, umeentzako jolas guneak handituko dituzte. Horrez gain, dagoeneko martxan dauden eta Algortako erdigunetik Azkorriara joango den bidegorriaren lanak jarraituko dute.



Borobia plazak 800.000 euroko aurrekontua izango du

Elkartoki garrantzitsuak eta harremanetarako ezinbesteko puntuak izan ohi dira herrietako plazak. Getxon, eraldaketa nabarmena bizitzen ari dira. San Nikolasekoa Antzokiagaz batera hasi zen eraldatzen; horren ostean, Romoko Txabarri Zuazo parke barritua zabaldu zuten. Maiatzean, Aldapako proiektua aurkeztu zuten. Orain barriz, Bidezabalgo Borobia eta Algortako Geltokia plazaren txanda heldu da. Proiektu biak aurkeztu zituen Udalak hile hasieran nahiz eta lanak ekaina amaieran hasiko diren.

Borobia plaza 2.410 metro koadroko gunea da. Aurreikusitako proiektuak, erdiko gune zabalak jasotzen du, 342 metro koadroko jolasgune barriagaz. Pertsona nagusiek eta mugitzeko arazoak dituztenek, atsedean hartzeko esparrua izango dute, aulki barri, argiztatze hobia eta oinezkoentzako ibilbide zabalakaz. Auzotarren eskaerei erantzunez, inguruko

zuhaitzak mantenduko dituzte. Geltokia plazan bezala, hemen ere lurpeko edukiontzia jarriko dituzte plazaren erabiltzaileen mugikortasuna errazteko. 800.000 euro bideratuko dituzte proiektu

«Geltokia eta Borobia plazetan 2.000.000 eurotik gora inbertituko dira; lan horiekaz batera, Algortako eta Azkorri lotuko dituen bidegorria egingo dute»

tu honetara. Plazako lanak egiteagaz batera, Algortako erdigunea eta Azkorri lotuko dituen bidegorria jarraituko dute.

Gobernu taldeak, aurkezpenean azaldukoaren arabera, Geltokia plazako proiektua, merkataria, ostalari eta herritarren proposamenak kontuan hartuz,

modu parte-hartzailean egin da. Argi puntu gehiago jarriko dira dendetako erakusleioei protagonismoa emanez. Zoladura aldatuko da, oinezkoentzako eta garaje eta dendetara sartzen diren ibilgailuentzako egokia dena jartzeko. Plazaren erdian 500 metro koadroko jolasgunea egingo dute. Plazako berdeguneak mantendu egingo dira eta altzari barriak jarriko dituzte. Udalak adierazi du, merkatarien eskaerei erantzunez, lanak Gabonak hasi aurretik amaitu gura dituztela. Guztira, 1.362.300 euro inbertituko dituzte.

Udalak *«Getxoko leku publikorik garrantzitsuenak barritzeko eta egokitzeko prozesuaren barnean»* kokatu ditu bi plazak barritzeko lanak: *«Datozen urteetan horren emaitzez gozatzeko aukera izango dugu»*. ○

Bandera urdina hiruretan

Bigarren urtez lortu dute bandera hiru hondartzek



Bigarren aldiz lortu dute izendapena hiru hondartzek batera

Getxoko hiru hondartzak lortu dute Ingurugiroko Hezkuntzako eta Kontsumitzaileen Elkartek (ADEAC-FEE) Espainiar Estatuko hondartza eta portu jasagarriari ematen dien bandera urdina. Euskal Herrian, bandera lortu duten hondartza bakarrak dira Gorrondatxe, Arrigunaga eta Ereaga. *«Ingurugiroa eta natura errespetatuz hondartza gestionatzeko egindako ahalegin berezia aitortu»* gura du ADEACEk izendapenakaz. Guztira, 605 dira Espainiar Estatuan bandera urdina lortu duten hondartzak eta portuak, joan den urtean baino 34 gehiago. Bainatzeko uraren kalitatea, garbitasuna, informazioa, ingurugiroarekiko hezkuntza, segurtasuna, zerbitzuak eta azpiegiturak hartzen dira kontuan banderak banatzeko.

1992. urtean lortu zuen bandera urdina lehen aldiz Gorrondatxe hondartzak. Ordutik, 17 bider eskuratu du; salbuespen bakarra *Prestigeren* isurketak zirela eta eman zen. Dunen ekosistemagatik eta hondar-lurzoru bigunean Euskal Herriko apo lasterkariaren bi populazioetako bat hartzen duelako, garrantzi handia du Gorrondatxek. Ereaga hondartzak 2006an eta 2007an lortu zuen bandera eta Arrigunagak 2007an. Urte horretan, hain zuzen ere, lortu zuten lehenengo aldiz bandera hiru hondartzek batera.

Keltse Eiguren Ingurumen Zinegotzia, pozik agertu da sariakaz: *«Turismo gehiago ekarriko dute»*. Izendapena, maila handi batean, urtean zehar aurrera eroandako ingurumen programei esker ere badela azpimarratu gura izan du. ○

ZIENTOETXEKOEK GASA IZANGO DUTE

Auzokide talde batek aurkeztutako eskaerari kasu eginez, Getxoko Udalak eta Naturgas enpresak hitzarmena adostu dute Zientoetxeko auzotarrei eta Saratsaga ikastetxeari hiri-gasa eroateko hodia ipintzeko. Auzotarrek Diliz estarta eta Zientoetxe amaiera artean hiri-gasaren hodia ipintzeko lanak egitea eskatu zuten. Eskaera horren aurrean, Udalak obra-egitasmoa barriz aztertu eta auzotarren eskaera Naturgasi proposatu zion. Hodia ipintzeko lan barriak ez dituzte errepidea hobetzeko gainontzeko lanak atzeratuko; uztaila akabuan amaitzea aurreikusita dago.

AREETAKO LUR AZPIKO PARKINGA EZIN DA EGIN

Getxoko Udalak eskatuta egindako bideragarritasun txostenak, Areetako Merkatuaren azpian lurpeko parkinga egiteak kostu handia suposatuko lukeela eta beraz, hori egitea ezinezkoa dela erakutsi du. Solairu bakarreko lurrazpiko parkinga egingo dute, bertan egongo diren enpresetako beharginek erabili ahal izango dutena. Merkatuaren azpian harea multzo handia dago eta, horregatik, ezin izango lirake behar bezalako zimendatzea egin. Alderdi Popularrak proposatu zuen lur azpiko parkinga egitea; txostena jaso ostean, Udalean ordezkaritza duten alderdi guztiek ezetza eman diote parkingari, PPK izan ezik.

ALDUNDIAREN 225.000 EURO KULTUR ETXERA

Bizkaiko Foru Aldundiak 225.000 euro emango dizkio Getxoko Kultur Etxeari, aurtengo zenbait ekintza kultural diruz laguntzeko. Jazz, Blues eta Folk jaialdiarako eta Komiki Azoka, Antzerki Jardunaldiak, Udaberri Kontzertuak eta Getxoarterako erabiliko da dirua. Getxo Jazz Jaialdia, Euskadiko Jazz Zirkuituaren barruan dago; aurrean uztailaren 1etik 5era egingo da. Sarrerak salgai daude daborduko eta BBK-ko kutxazainetan eta Algortako Kultur Etxean eskura daitezke.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Bagastikoetxe Industriak
Etxalde 2 - Pabio: 11
48330 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Ana Telo > Berbalaguna eta 2010eko Mintza Eguneko sariduna

“Elkarri lagunduz euskara hobetzeko aukera ona da berbalagun taldea”



Ana Telo, Arriluzeko pasealekuan

“Dabilen mihiri ez zaio goroldiorik lotzen”. Ana Telo baieztapen horren adibide garbia da; orain bost urte Hizkuntza Eskolan zegoela ezagutu zuen Berbalagun ekimena. Bertan parte hartzea erabaki zuen, mingaina mugimenduan jarri eta mintzapraktika lantzeko. Orduetik talde batean zein bestean, tabernan kafea hartuz zein frontoian paletan jokatzuz, astindu ederra eman dio mihiri. Ekainaren 6an Arrasaten ospatu zen Mintza Egunean, saria eman zioten Getxoko Berbalagunen kirol taldeak antolatzen egindako beharragatik.

—Zergatik erabaki zenuen Berbalagun ekimenean parte hartzea?

—Garai horretan, Hizkuntza Eskolan nengoen. Laugarren mailara heldu nintzenez, Berbalagun talde batean sartzea erabaki nuen, nire hizkuntza hobetzeko asmoz. Hizkuntza Eskolan gramatika asko ikasten da, baina mintzamen ez da lantzen. Euskaraz berba egiteko aukera ona zela ikusi nuen. Etxekoak haiek gura dutenean egiten dut euskaraz; seme zaharrenagaz bai, baina gazteak beti erantzuten dit gaztelaniaz.

—Zer aurkitu duzu Berbalagunean?

—Jende barria ezagutzeko aukera eman dit eta oso gustura egon naiz. Hasieran Satistegi tabernan elkartzen nintzen nire taldeagaz. Baina, aurten taldez aldatzea erabaki dut, jende barria ezagutzeko. Elkarri laguntzen diogu eta horregaz nahiko daukat.

—Zer iruditzen zaizu Berbalagun ekimen moduan?

—Ondo ikusten dut. Danakaz ikasten dugu zer edo zer. Nire taldean bost edo sei gara, euskara maila ezberdinekoak.

—Saria eman dizute, berbalagun kirolariak antolatzeagatik?

—Duela bost urte pala taldea sortu genuen. Berbalagunen aurkezpen egunean kirola egiteko toki bat lortzeko proposamena agertu zen. Ni Berangoko “Lagun-beti” klubeko bazkidea naiz eta bertan frontoian jokatzeko dugu. Bertara joatea proposatu nuen eta han ibili gara. Zorte ona izan dut; pala taldeko gainontzeko kideak irakasleak dira eta asko ikasi dut haiekin.

—100 berbalagunetik gora dago Getxon; non uste duzu dagoela arrakas-

«Dohainik da, jendea ezagutzen dugu, euskara praktikatzen dugu... »

taren sekretua?

—Ez du alde txarrik, orduan zergatik ez du arrakastarik izango? Dohainik da, jendea ezagutzen dugu, euskara praktikatzen dugu... Badago hizkuntza perfila lortzeko praktikatzera etortzen den jendea, behin lortuta taldea uzten duena. Baina hori ez da ohikoena; gehienek perfila lortuta ere jarraitzen dute. Gainera, mendira joateko, topaketa berezietan egoteko edo beste hainbat gauzatan parte hartzeko aukera daukagu. Oso ondo dago!

—Zelan hartu zenuen sariaren albistea?

—Egia esan ez zait sariak jasotzea lar gusatzatzen, baina eskertu dut. Nik transmititu gura dudun mezua ondokoa da: jendeak hizkuntza perfila lortzean berbalagun taldean jarrai dezala, euskararen sarea josten jarraitzeko.

—Zer esango zenioke lagun bati berbalagun talde batean sartzeko?

—Elkarri lagunduz euskara hobetzeko aukera dela esango nioke. Ale batek ez du taldea egiten, baina laguntzen du. ○

Getxoko *Itsas Jaia*

Bisitariak erakartzeko, **kultur eta kirol jarduerak** egingo dituzte **21etik 27ra**



Bela eta nabigazio ikastaroak egingo dituzte *Itsas Jaia*ren barruan

Bisitariak erakartzeko helburuagaz, *Getxo Sea Week* edo *Itsas Jaia* antolatu du Udalak hainbat elkarte, erakunde publiko eta enpresaren laguntzagaz. Ekimen turistikoa da “*udalerraren sustapen ekonomikoa bultzatzea*” lortu gura duena. Imanol Landa alkateak aurkezpenean esandakoaren arabera, “*40.000 bat lagun hubildu ahal izatea dago aurreikusita*”.

Portu Zaharrea, Bizkaiko Zubian, Kirol Portuan eta Areetatik Algortara doan itsatsertzeko pasealekuan egingo dituzte programatutako kirol eta kultura ekintzak ekainaren 21etik 27ra. *Sirgerak* ikuskizuna, *Belle Epoque* izeneko merka-

taritza azoka, *Kraken txibia erraldoiari* buruzko erakusketa eta itsas zinema emanaldia dira egingo dituzten kultur ekimnetako batzuk. Kirol ekintzei dagokienez, itsasontzietan urteerak, itsasontzi klasiko-en topaketa, bela eta nabigazio ikastaroak, irrastaketa topaketa eta kometa jaialdian parte hartzeko aukera egongo da, besteak beste.

Getxon zein Bilbon ostatua hartzen dutenez, pakete turistiko bereziak prestatu dira; deskontuak egiteaz gain, jarduera batzuk doan eskainiko zaizkie. ○

Informazio gehiago:
www.sergofi.com/getxoseaweek

EMAKUME GAZTE BI 18KO BALKOITIK BALKOIRAN

Tolosan egin zen lehen aldiz balkoitik balkoira saioa 1802. urtean. ALBE Algortako Bertsolari Eskolak aspaldi ekin zion ohitura hori berreskuratzeari eta horren emaitza da urtero uda hasiera iragartzen duen bertso saio herrikoia. Ekainaren 18an, Algortako Portu Zaharreko Etxetxu Plazara gaueko 22:00etan deitu dituzte bertso zaleak. Aurten, azkenengo Bertso Txapelketa Nagusian gogor jo duten emakume gazte bi izango ditugu mikroa eskuan, Jone Uria getxoztarra eta Miren Amuriza berriztarra.

IRUDIMENA ETA AHOTSA LANTZEKO TAILERRA

Getxoko Antzerki Eskolak, udako zein datorren ikasturterako eskaintza aurkeztu barri du. Alde batetik uztailearen 9, 10 eta 11rako irudimena eta ahotsa lantzeko tailerra antolatu du. Aktore amateur zein profesionaleri, abeslariari, kazetariari eta ahotsa lantzeko interesa duen edozeini zuzendua dago tailerra. Izen-ematea zabalik dago 94 430 31 94 telefonora deitu edo info@escueladeteatrodegetxo.com helbidera idatzi. Bestalde, datorren urtean eskolako arlo profesionalen hasteko izen-ematea ere zabalik dago. Garai barrierei egokitzeko, berregituraketa egin dute; datorren ikasturteretik aurrera, matrikula urtero egin ahal izango da (orain arte urte birik behin egin da) eta hiru urtetan lortu ahal izango da agiri ofiziala (orain arte lau urte behar izan dira). 15 leku eskainiko dituzte.

PAILAZOAK BIOTZ ALAI PLAZAN HILAREN 23AN

Ekainaren 23an, 17:00etan eta 19:30etan, Txirri, Mirri eta Txirribiton gazteen emanaldiagaz barre egiteko aukera egongo da Algortako Biotz Alai plaza. *Katxurri Miliputxi* izeneko ikuskizuna ekarriko dute eta ikusleak mugimenduan, dantzan eta saltoka jarriko dituzte. Abestiak, bihurrikeriak eta ezusteak ez dira faltako. Sarrerak salgai daude, 4 euroren truke.

lagusana
libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Ale Bueno > Arte Ederretako ikaslea

“Telebistan eta publizitatean ikusitakoa barneratzen dugu izaki irrealak bihurtuz, izaerarik gabekoak”

Umore Azokan lan asko ikus zitezkeen, baina guztiak al zeuden egitarauaren barruan? Jende asko erakartzen du azokak eta aukera hori ezin gal dezake bestelako artistak. Ale Bueno gasteiztarra da, baina Leioan bizi da eta Arte Ederrak ikasten du. Beharra daukat egitasmoa aurkeztu zuen azokan, gerturatutako begiradak aprobetxatu guran.

—Umore azokan egin duzu zure proiektua, *Beharra daukat*, baina antzerkiagaz zerikusirik ote dauka?

—Nik hausnarketa egin dut, kartelak erabili ditut eta nolabaiteko *performance*-a egin dut. *Beharra daukat* zen izenburua, kartelak seinaleak modukoak ziren, baina hainbat objektu zituzten barruan. Objektu horiek talde sozialaren behar iragankorren parte dira, eta bizioetan laburbildu ditut: drogak, sexua, janaria, dirua... Pegatinak kalean jarri nituen eta kide batzuen laguntzagaz antzeztan genuen bizio bakoitza.

—Zer erakutsi gura izan duzu?

—Kontsumoari buruz hausnarketa egin nahi nuen. Agian ikusleak ikuskizun txikiarekin geratu dira bakarrik, baina gizarte kapitalistari buruzko hausnarketa egi-



Bere lana: www.vimeo.com/user2567784 eta www.tengomono.blogspot.com

tea izan da helburua. Kapitalismoak dena bideratzen du kontsumora eta izaerarik gabeko pertsonak sortzera. Begi aurrean jartzen diguten kontsumorako objektuetan jartzen dugu arreta. Horiek bideratuta daude modaren arabera hainbat izaera sortzera. Pertsonak izaera horiekaz pareka daitezten programatuta dago. Telebistan eta publizitatean ikusten duguna barneratzen dugu izaki irrealak bihurtuz, izaerarik gabekoak.

—Zurea da egitasmoa, baina laguntza izan duzu, ezta?

—Proiektua nik sortu dut, baina egiteko laguntza behar izan dut: nik pegatinak jarri bitartean norbaitek grabatu behar ninduen eta antzezpenerako ere lagunak behar nituen. Guztira bost izan ginen.

—Eta jendeak nola hartu zintuzteten?

—Askok uste zuten egitarauan geundela. Beste batzuk normaltasunez hartu zuten, antzezpena zela ohartu gabe. ○

Parrandarako gertu!

San Juan suak argituko ditu herriko jai nagusiak, ekainaren 23tik 27ra



Urtero moduan, girorik ez da faltako aurtengo sanjuanetan

Urteko gaurik laburrena magikoa da, ondo baino hobeto dakite hori leioztarrek. Ekainaren 23an hasiko dira San Juan jaiak eta akelarreak jarriko du norabidea ekainaren 27ra arte. Sorginen irriehin egin ahalko diezu?

Jaiaren suziria piztuko dute 23ko arrastian. Gauean Drindotsek eskainiko du dantzaldia Ikea Barri plazan, eta sardina-jana, erromeria eta akelarrea egingo dituzte txosnetan. Su artifizialak ez dira faltako gau berezian.

Eguenean hasiko dira umeentzako ekintzak Euskal Etxeen plazan eta koadri- len arteko probak. Ikea Barrin larrain dantza dantzatuko dute 19:00etan eta Luhartzek joko du 23:00etan, txosnetan

kontzertuak egongo dira 22:00etan, eta Aldapan, La Otxoa 23:00etan. Barikuan umeentzako berbera prestatu dute Euskal Etxeen plazan, 19:00etan. Txosnetan Bilbomatiks eta Hesian taldeek joko dute 23:00etan, eta institutuan, El hermano L eta Akatzek.

Zapatuan ospatuko dute Antzineko eguna, baserritar jantzi eta murgildu giroan, animaziorik ez da faltako eta! Kontzertuak 23:00etan hasiko dira: institutuan La Union eta Damba, txosnetan Vindicatio (Habeas Corpuseko hainbat kide). Domekan, ondo amaitzeko, Erdizka lauetan, goitibeherak eta bertso saioa egongo dira. Bidean ez galtzeko, Akerrek lagun zaitzala! ○

MARI PEPA ETA ARLOTE JAIETARAKO PREST

Haizea Hormaetxea eta Igor Euba dantzariak izango dira hezur eta haragizko Mari Pepa eta Arlote aurtengo, herritarren babesa jaso baitute. Ondorioz, jaietako pertsonaia nagusi bihurtuko dira sanjuanetan, benetako protagonistak, azken urteotan legez. Pregoia irakurri, txupina jaurti eta ekitaldiz ekitaldi ibiliko dira, herritar guztiakaz bat eginez. Ez daukate lan makala!

EHU-N IKASTEKO GELAK ZABALIK ASTEBURUETAN

Ekaineko azterketetan erabat murgildurik daude unibertsitateko ikasleak dagoeneko. Baina inoiz ez dute izaten nahikoa astirik, eta horregatik, asteburuetan ere ikasteko aretoak zabaldu ditu Euskal Herriko Unibertsitateak, herriko kanpusean. Azterketa garaia iraun bitartean mantenduko dute eskaintza, hots, ekainean zein abuztuaren akabuan eta irailaren hasieran. Zapatuetan 09:00etatik 19:30era erabil daitezke aretoak, eta domeketan, 09:30etik 19:30era. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasgelategia gehituko zaio liburutegi nagusiari. Bilboko hainbat fakultatetan ere atondu dituzte ikasteko aretoak asteburuetan, ikasleei zerbitzu osoa eskaini asmoz.

TELLERIA BIRIBILGUNEA ITXITA, SEI HILABETEZ

Sei hilabetez itxi dute Telleria biribilgunea, Leioatik Getxora igarotzeko guneetako bat. Oinezkoentzako nahiz ibilgailuentzako itxi dute, eta beraz, ezin daiteke inor igaro, Jolaseta zubiaren eraispen-lanak direla eta. Getxora errepidez iristeko Uribe Kosta sahisbidea erabiltzea gomendatu du Udalak. Gobela ibaiaren hobekuntza hidrológicoak gauzatu ahal izateko lanak egiten dabilta, horregatik moztu dute biribilgunea. Uholde arriskua gutxitzeko Uraren Euskal Agentziak abiatu dituen ekintzetako bat da.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net



Ekainaren 5ean, Inguugiroaren Nazioarteko egunean, KUME-k dimentsio berdea inauguratu zuen:

Maskotentzako denda ekologikoa.

Hurbil zaitetz: KUME ERANDIO, Itsasadarreko Errepidean Erandio eta Astrabudua artean.

KUME BERDEA. DENDA EKOLOGIKOA!!

Biktima, zeren arabera?

Josu Murueta Frankoren erregimenaren biktima izan zela aitortu dute, Anton Fernandez barriz, ez, "ez zegoelako manifestazioan"

Erandion kutsadura lar zegoela salatzen protestak egin zituzten herritarrek 1969an, Frankismo garaian. Poliziak tiroz desegin zituen mobilizazioak eta lagun bi hil zituen. Anton Fernandez etxeko balkoian zegoen tiroek harrapatu zuten. Josu Muruetak hurrengo egunean parte hartu zuen gertaera salatzen manifestazioan, eta bertan hil zuten. Espainiako Gobernuak onartu du Frankoren erregimenaren biktima dela, *Memoriaren Legearen* arabera, baina Anton Fernandezek eskaera atzera bota dute, "ez zuelako manifestazioan parte hartu".

Senideak aita barik uzteaz gain, "egoera ekonomiko larrian geratu eta ahal bezala egin behar izan genuen aurrera", dio Kontxi Fernandez alabak. Ahaztuak 1936-1977 elkartaren arabera, izendapenak aitortza eta ordaintza lekarke, "biak ala biak garrantzitsuak". Gainera, Frankismoaren "zigorgabetasuna" salatu du: "Frankismo garaian ez zen biktima erregimenaren aurka zegoelako; eta demokrazian ez da behar bezain biktima, ez zelako manifestazioan egon". Egoerari "surrealista eta inaingarria" deritzo: "duintasun eta gizatasun eza ikaragarrikoa da".

Memoriaren Legea orain urte bi sortu zuten, 1968tik 1977ra arteko biktimak legalki aitortzeko. Hego Euskal Herrian 86 pertsonak aitortza lortzeko baldintzak bete-



Kontxi Fernandez (Antonoren alaba) eta Martxelo Alvarez (Ahaztuak 1936-1977)

tzen dituzte, elkartaren arabera. Horietatik bederatzik aurkeztu dute erreklamazioa, baina hirurenak baino ez dituzte onartu. Gainontzekoek helegitea jarri dute.

Baina bederatzik soilik eskatu dute, epea amaitu zaielako. Pertsona horiekaz inor ez da harremanetan jarri eta bere kabuz, zoriz jakin dute eskaera egiteko aukeraren barri, elkarrekin azaldu duenez, "baina askok baldintzak betetzen dituzte eskaera onar diezaiten"; epea barriz zabalteko eskatu dute.

Udalera ere jo dute elkarrekin eta senideek, ekaineko Osoko Bilkuran aztertuko mozioa. Besteak beste, eskatu diote Frankismoaren "zigorgabetasuna" salatzen eta Balioztatze Batzordeari Anton Fernandezek kasua barriz aztertzeko eska diezaiola. Kontxi Fernandezek azalpenak aurpegira gura ditu, ez paperezko erantzuna bakarrik, eta orain mugitzea geratzen ei zaie, "erakundeek iritzia eman dezatela eragin, erantzuleak ez daitezela eroso egon". ○

Metrora errazago

Astrabuduko metro geltokira iristeko **igogailua eta eskailera mekanikoak** jarriko dituzte



Orain aldapa nabarmena dago metrotik Astrabudura igotzeko

Adinekoek, elbarrituek zein umeentzako aukerak batez ere, zaila daukate, gaur egun, Astrabuduko metro geltokitik auzora igotzea, malda nabarmena tartean baitaude. Auzotarren aspaldiko eskaria da geltokirako sarbidea hobetzea, eta azkenean, lortu dute. Lanak egiteko administrazio-izapidea onartu du Udalak eta sarbide barria eraikitzeari ekin dio dagoeneko.

Egitasmoak, beraz, egungo aldapa ordezkatuko du. Igogailuak eta eskailera mekanikoak jarriko dituzte; metro geltokiko sarreratik aterako dira. Bai batak eta bai besteak, bat egingo dute oinezkoentzako pasagune batez; apenas maldarik

ez omen du izango. Gainera, ez labaintzeko zorua eta argiztapen espezifikoa ere edukiko ditu.

Baina hori ez da guztia. Pasagunea poli-karbonatozko egitura batez estaliko dute, euria dagoenean oinezkoak busti ez daitezela.

Toki-Inbertsiorako Espainiako II. Planaren diruagaz ordainduko dute proiektua eta 1,6 milioi euro kostako da guztira.

Metro Bilbaok orain 15 urte abiatu zuen metroa, geltoki barriak eraikiz. Astrabuduan kasuan, nasak ez daude elkarren aurrean eta geltokitik urten beharra dago norabidea aldatzeko. ○

KUKULARRAKO JAIK 25ETIK 27RA

Auzoek martxa hartu dute eta festaz lepo dator ekaina. Azken asteburuan Kukularraren txanda izango da eta dena daukate prest. Barikuan, hilaren 25ean, sardina-jana egingo dute 19:30ean. Zapatuan, barriz, paella txapelketa egingo dute, 12:00etan. Gainera, egun osoan zehar izango dira umeentzako jolasak eta jarduerak. Eta jaiak bukatzeko tortilla txapelketa da egingo dutena domeka goizean. Arrastian umeak izango dira protagonista barriro; izan ere, Deabru Beltzak taldeak eskainiko du ikuskizuna.

IKASTEKO ARETOA ASTRABUDUAN

Azterketa garaian egin ohi duten legez, ekainean ere atondu dute ikasteko aretoa asteburuetarako, Josu Murueta Kultur Etxean, Astrabuduan. Beraz, ekainaren 19an, 20an, 26an eta 27an ere erabili ahalgo da aretoa, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.

LEHIAKETA ERANDIOKO BANDERA IRAGARTZEKO

Erandioko XXIII. Bandera iragarriko duen kartela lehiaketa bitartez aukeratuko dute aurtun, lehenengoz. Gaia izango da arrauna, itsasadarra eta Lutxanako Arraun Elkarteak. Lanak uztailearen 5eko ordu biak baino lehen aurkeztu behar dira Udaleko Kultura sailan edo Astrabuduko Udal Bulegoan. Irabazleak 300 euro jasoko du.

AUTOA GIDATZEKO, AZTERKETA EUSKARAZ

Uribe Kostako herri gehienetan legez, Erandion ere egin daitezke gidatzeko baimenaren azterketa euskaraz. Gaztedi, Erandio, Altzaga, Arias eta Astrabuduko autoeskoletan dago aukera. Azterketa teorikoa euskaraz egiten dutenei gidatzeko klase bana oparituko diete eta Europa interrailez zeharkatzeko bidaiaren zozketan parte hartuko dute.

Luberr Basolanak, SL
Axpe ibalartza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf: 94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizko lanak eta ereto lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarrizko, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, bemeikatzea, soropil gailzak eta belar gisetoak tratatzea.
- Insusetak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaitza apaingarriak inustea, erabateko insusetak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

SURF IKASTAROA DOAN, EKAINAREN 29AN

Surfak erakarri, baina inoiz ez duzu probatu? Orain daukazu aukera. Billabong Peñatxuri Surf Eskolak doako ikastaroa eskainiko du ekainaren 29an, gura duenarentzat. Surfari eta ingurumenari buruzko hitzaldiak ere emango dituzte. Surfari profesionalak ere izango dira irakasle, Hodei Collazo tarteko. Materiala eurek jarriko dute, gogoia baino ez duzu eroan behar!

Izena emateko: 675 591 266

GIDA BAIMENA EUSKARAZ, SOPELANAN ERE

Azkenean euskaldunek ere, euskaraz egin ahalko dute gidatzeko baimena ateratzeko azterketa. Uribe Kostan hainbat autoeskolatan egin daiteke, eta Sopelan, hirutan: Kaiku, Sopelana eta Uribe Kosta autoeskolak. Azterketa teorikoa euskaraz egiten duten lagunei klase praktikoa bana oparituko diete eta Europan zehar interrail bidaiaren zozketan parte hartuko dute.

HONDARTZA GARBI, GUZION GOZAMENERAKO

Fruitu sikuen azala lurrera botatzea ohikoa da, baina ez gara ohartzen ekar ditzakeen arazoak. Hori dela eta, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Kontsumo Sailak eta Ekoguneko Zaindu ezazu Uribe Kosta kanpaina abiatu dute. Zehazki, fruitu sikuen eta horien azalak biltzeko poltsak banatuko dituzte hondartzetako erabiltzaileen artean. On egin, baina uztazu garbi!

ONTZI BARRIA, LANDARE-OLIOA BILTZEKO

Etxean edo ostatuetan erabilitako landare-olioa batzeko beste ontzi bat jarri du Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak, sistemak izan duen arrakasta ikusita eta pertsona erabiltzaileen beharrei erantzuteko. Ontzia Lizarre kalean dago, 20.ean.

Sanpedroetarako prest?

Musika, kale animazioa eta umeentzako jarduerak ez dira faltako **ekainaren 25etik 29ra**



Egitarau osoa: www.sopelana.net

Herriko lehenengo jai handiak ate joka datoz, eta ekitaldiz blai utziko dituzte sopoloztarrak, ekainaren 25etik 29ra.

Barikuan, hilak 25, hasiko dira San Pedro jaiak. Txosnak 20:00etan zabalduko dituzte eta 30 minutu beranduago jaurtiko dute txupina Ugeraga futbol taldeko emakumeek, plazan. Gau horretan bertan musika jarriko dute Luhartz, Boleros 4, El niño de la catana eta La pegatina taldeek.

Biharamunean zabalduko dute umeentzako gunea Iturrieta parkean, eta gaztegunea plazan. Arrastian Erdizka

lauetan eta Mariachi juvenil taldeak arituko dira bazterrak nahasten. Gauean kontzertuak izango dira: The Descent, Bongo Botrago eta Vendetta.

Domekan ere gozatzeko aukera egongo da: bakailao txapelketa, antzerkia, herri bazkaria, aerobitroia, diskojaila, erromeria... Astelenean, barriz, Imuntzo eta Beloki eta Itziarren semeak musika taldeen txanda izango da, eta martitzenean, San Pedro egunean, Zirika Circusek eta Kanta herriari ekimenak girotuko dute jaiak. Hondartzan bisitari gutxiko egunak izango dira... ○

Mireia Epelde > txirrindularia, Euskadiko txapeladuna

“Joanek kanpora joan behar izan zuen, ez dakigu zer mailako kirolaria izan dugun”



Lointek-Ugeraga taldea maila ona erakusten dabil probaz proba

Lointek-Ugeraga taldean dabil Mireia Epelde txirrindularia eta Euskadiko txapeladuna lotu zen maiatzean, Sopelan burututako lasterketan. Azpeitiarra da, baina gustura dabil Sopolako taldean.

—Euskadiko txapeladun lotu zara.
—Bai, iaz ere irabazi nuen eta aurten helburua zen taldean elkarri irabaztea. Helburua lortu dut eta gustura nago.
—Horretarako lan handia egin behar?
—Bai, azaroan hasiko gara denboraldia prestatu eta helburuak ipintzen. Helburuok lortzea ez dago gure esku bakarrik, erorketak eta lesioak medio. Baina lortuz gero, lanari eskainitako saria da.
—Baina azpeitiarra izanik, nolatan zabilta Sopolako taldean?
—Orain arte Durangoko talde batean ibili naiz, eta hobetzeko esperantzaz aldatu nintzen iaz. Esperantza eta ilusio horrekin hasi nintzen eta ondo joan da dena. Entrenatzeko nire kontura egiten dut, Iruñean nabil lanean. Noizbehinka

hainbat egunetako kontzentrazioak egiten ditugu taldean, elkarrekin egoteko eta ezagutzen joateko.
—Emakumeek zail daukate kirolek bizitzea; txirrindularitzan Joane Somarribaren arrakastak bultzada eman zion emakumeen parte hartzeari?

—Horrelako pertsonak beti dira erreferente, agian mundu honetan sartuta ez daudenek ez dituzte ezagutzen. Joanek indarra izan zuen, baina kanpora joan behar izan zuen bizimodua aurrera ate-

«Helburuak lortzea ez dago gure esku soilik, erorketak eta lesioak daude»

ratzeko mundu honetan. Euskal Herrian ez gara konturatu zer mailako txirrindularia izan dugun. Indarra eman digu, baina gehiago aprobeatza genezakeen tiraldia. Emakumeak erakartzeko agian balioko zuen, dudatan zeudenak animatuko ziren agian. Erreferentea edukitzea laguntza da, adorea ematen du. ○

LAIKAK
Taberna

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak

RIPOLIN
BONDEX
DYRUP

Lorño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturriberria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barnikuntza

Gatzarrine s.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

Markel Martinez Karrantza > *No Comply* musika taldeko kidea


“Taldea sortu genuen ondo pasatzeko eta ikasteko, orain MusicAula lehiaketan parte hartu dugu”

Getxo eta Bilbokoak dira, baina Berangon entseatzen dute *No Comply* musika taldekoek. MusicAula lehiaketan parte hartu dute eta epaiaren zain daude, finalera igaroko ote dira. Markel Martinez bateria-jotzaileagaz berba egin dugu taldea ezagutzeko asmoz.

—MusicAula lehiaketan parte hartu duzue, lehiaketa berezia da, ezta?

—Valentziarrek antolatu ohi dute, musika munduan dabiltzan lagunak. Eskolarteko lehiaketa da, talde gazteak bultzatzeko. Kanporaketak musika estiloaren arabera izan dira, sei taldek jokatu dute finalurreko bakoitza. Estilo bakoitzeko irabazleek jokatu dute finala ekainaren 30ean, Madrilan. Jendeak internet eta SMS bitartez bozka dezake talderik gustukoena, eta epaimahaiak ere parte hartuko du erabakian. Irabazleak gira bat egin ahalko du eta kontratu diskografikoa egingo diote. Onena zera da, adina dela muga, eta hortaz, beste batzuetan baino aukera gehiago daukagu gazteok.

—Eta esperientzia, zelakoa?
—Ona. Orain arte eskaini ditugun kontzertuak nahiko espontaneoak izan dira, inguruko tabernetan. Baina lehiaketa ar-



Maiatzaren 29an jokatu zuten MusicAulako finalurrekoa, Iruñean

te, sekula ez dugu jo horrelako taula handian. Oso ondo egon zen, mikro proba eta guzti. Beste taldeetakoak lagun egin genituen.

—Baina oso gazteak zarete, zenbat denbora darozue elkarrengaz jotzen?

—Urte bat baino gehiago daroagu. Nik bateria jotzen dut eskola batean, bertan ezagutu nuen gitarrista, elkarren lagun egin ginen. Beste musikari batzuk bilatzeari ekin genion, eta bost geundenean,

taldea sortu genuen, ondo pasatzeko eta ikasteko asmoz. Abestiak sortzen hasi eta maketa grabatu genuen. Hainbat lehiaketaren barri izan eta bidali genuen; MusicAularako hautatu gintuzten.

—Beraz, zuen abestiak jotzen dituzue?

—Baditugu zazpi kanta, baina bestelako abesti ezagunak ere jotzen ditugu, jendearen gustukoak. Izan ere, ez gara ezagunak eta entzulearengana iritsi behar dugu. ○

Uribe Kosta Butroie Biotopoa > babesteko eskaria

“Uribe Kosta eskualdea babestu beharreko eremua da”



Barrika eta Gorlizko zenbait naturgune babestu gura dituzte ekologistek

Barrikan hasi eta Armintza arte, bost habitat ezberdin hartzen ditu Uribe Kosta-Butroie izenez ezagutzen den, “*ingurumen kalitate bereziko*” eremuak. Astondopunta, Eguzki, Ekologistak Martxan, Espitzu, Lannius, Sagarrak, Talaia, Txipio Bai eta Txirpial talde ekologistek eremu hori Biotopo Babestua izendatzeko eskatu barri diote Eusko Jaurlaritzari.

Ekologisten ustez, “*Uribe Kosta eskualdea balioetsi eta babestu beharreko eremua da, ingurumen, zientzia, historia eta kultura balio handikoa*”. Butroie ibaiaren estuarioa jartzen dute garrantzi handiko gune naturaleko ardatzat; bertan, espezie asko batu, ingurune ezberdinak (ibaitarra, itsastarra eta lehortarra) lotu eta hegazti migratzaileentzako babeslekua aurki daiteke. EAeren Hezeguneen Lurralde Arloko Planaren barruan egindako zenbait ikerketek,

“*goi mailako balioa*” ematen diote estuarioari, Urdaibaik soilik gaingitzen duena.

Barrika eta Gorliz-Armintzako itsas labarrak, Astondo-Gorliz-Plentzia badia, Barrikako kalak, artadi kantauriarra eta Gorlizko duna antropizatuak dira, besteak beste, ekologistek babestu gura

«Inguruaren ‘kudeaketa integrala’ behar dela uste dute ekologistek»

dituzten guneak. Azken urteotan, “*giza presio*” handia jasan dutela uste dute eta horregatik inguruaren “*kudeaketa integrala*” behar dela. Uribe Kosta Butroie Biotopo Babestua izendatzeko eskaera Eusko Jaurlaritzan aurkezteaz gain, Bizkaiko Batzar Nagusiei eta Barrika, Plentzia, Gorliz, Lemoiz eta Gatikako udalei luzatu diete, eurekatzat egin dezaten. ○

Torre 2
48980 ALGORTA
94 491 12 71
iratia@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

OSTAIDE HORTZ KLINIKAK
Aranza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Odontologia
- Periodontia
- PADI

Bidebarr 27, beheko eskalera
ALGORTA
94 430 76 96

BASTARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 781 128

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

AIXERROTA BHI

TEKNOLOGIKOA
BIXILITZERGOAK - NATUR ETXETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETXETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARRIN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTETXO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

LAN ESKUBIDEEI BURUZ INFORMATZEKO AUKERA

Plentziako Udalak zerbitzu barria jarri du martxan herritarrei lan eskubideei buruzko aholkularitza juridikoa eskaintzeko. Hilaren 23an, arrastiko 17:30etik 19:30era, abokatuei galderak egiteko aukera egongo da Astillero plazan. Lan kontratuei, menpekotasun legeari, amatasun edo aitatasun atsedendiari zein beste edozein gairi buruz zalantzak argitzeko aukera izango du bertaritzen denak.

ALKATEAK LARRIALDI ZERBITZUEN ALDE

Barrika, Gortiz, Lemoiz eta Plentziako alkateek mediku larrialdi zerbitzua bere horretan, orain arte egon den baldintza beretan, mantentzea eskatu dute, gaueko epea barne. Eskualdeko osasun zerbitzua gutxitzen duen edozein aldaketaren aurrean euren aurkako jarrera berretsi dute. Uribe Kostako Osakidetzak Zuzendaritzari jarrera horren barri eman diote, ahoz zein idatziz.

GIDABAIMENA EUSKARAZ URDULIZ ETA PLENTZIAN

Gidabaimena euskaraz ateratzeko kanpaina martxan jarri barri du Mankomunitateak beste Udal batzuekatz batera. Horri esker, Plentziako Uribe Kosta autoeskolan (Portaleta kalea 11) eta Urdulizko Kaiku autoeskolan (Gobela kalea 3) gidabaimena euskaraz egiteko aukera dago. Liburua eta ordenagailurako programa eskuratzeaz gain, eskola praktikoak euskaraz egin daitezke.

MANKOMUNITATEA

Bizikletaz ibiltzeko ikastaroa hilaren 28tik aurrera



Bizikleta ikastaroa Mugikortasun Plan barriaren diseinuagaz batera heldu da

Ekainaren 28tik uztailearen 2ra arte, Uribe Kostako Mankomunitateak antolatu duen bizikletaz ibiltzen ikasteko ikastaroan parte hartzeko aukera egongo da. Joan den urtean egin zuten lehenengoz ikastaroa, eta arrakasta ikusita, errepikatzea erabaki dute. Maila bitan banatuko dute ikastaroa: oinarrikoa, inoiz bizikletaz ibili ez direnentzat eta aurreratua, oinarriko ezagupenak izan arren, erraztasun handirik ez dutenentzat. Eskolak arrastiko 16:00etan (oinarriko mailako

taldearentzat) eta 18:30ean (talde aurreratuarentzat) izango dira astelehenetik barikura. Izen-emate orria Mankomunitateko web gunean dago eta e-postaz (agenda21@uribekosta.org) edo fax bidez (94 676 28 72) bidal daitezke.

Bestalde, irisgarritasuna hobetzeko Mugikortasun Plana diseinatzen dabil Mankomunitatea. Herritarren ekarpenak hartzeko eta informazioa zabaltzeko gunea jarri dute web orrian. ○

Informazio gehiago: www.uribekosta.org

Eka. 14 - Eka. 28

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

ERANDIO

► **Bisita gidatuak itsasadarretik.** Altzagako kaian. Ekainaren 27an, 11:30ean. Helduek 3 euro, umeek 2.

PLENTZIA

► **Pachwork tailerreko lanak.** Goñi Portalen, ekainaren 30era arte.

GETXO

► **Dinosaurio parkea.** Evaristo Txurruka kaian. Urrria arte.

MUSIKA

ERANDIO

► **Musika eskolaren entzunaldiak.** Josu Murueta Kultur Etxean ekainaren 15, 16, eta 17an, 19:30ean. San Agustin elizan ekainaren 18an, 20:00etan.

► **Europako Musika eguna.** Josu Murueta plazan. Ekainaren 20an, 12:00etan.

GETXO

► **Balkoitik balkoira bertso saioa: Miren Amuriza eta Jone Uria.** Algortako Portu Zaharrean. Ekainaren 18an, 22:00etan.

BERANGO

► **Urte amaierako ohiko entzunaldia.** Udal musika eskolan. Ekainaren 22an, 18:30ean.

► **Umeentzako berbena eta Egan taldea.** Lantzarte zelaian. Ekainaren 23an, 19:30ean.

ANTZERKIA

URDULIZ

► **Ipuin kontalaria.** Kultur Etxean. Ekainaren 18an, 18:00etan.

Bettye LaVette

► **Musika**

Getxo Blues 18tik 20ra, Romotik Algortara

Algortako Biotz Alai plazak hartuko du XXII. Getxoko Nazioarteko Blues Jaialdia ekainaren 18tik 20ra, Romoko Santa Eugenia plazan eraikiko duten kultur etxe barriko lanak direla eta. Baina ez da hori barritasun bakarra: aurtin, lehenengoz bost euro ordaindu beharko da kontzertuak ikusteko. Barikuan, hilak 18, Eric Sardinas gitarristak eta Big Motor bere taldeak joko dute. Gainera, Raimundo Amador gitarrista ezaguna izango du alboan. Zapatuan Bettye LaVette abeslaria arituko da, eta domekan, Music Maker Foundation, "hegoaldeko bluesman zaharrak": Dr. Burt, Pat Cohen, Eddie Tigner, Beberly Watkins, T. Brown eta Lil' Joe.

• **Non:** Biotz Alai plazan • **Noiz:** Ekainaren 18tik 20ra

GETXO

► **Txirri, Mirri eta Txiribito junior.** Algortako Biotz Alai plazan. Ekainaren 23an, 17:00etan eta 19:30ean. 4 euro.

► **Las rodillas de Conchita Herrero (Emakumeak eszenan).** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Ekainaren 26an, 19:00etan.

SOPELANA

► **San Juan gaueko akelarrea.** Urkon. Ekainaren 23an, 22:30ean.

► **Feribaleen arazoak eta Melocoton en almibar.** Kurtzio Kultur Etxean. Ekainaren 24an, 19:00etan.

ZINEMA

ERANDIO

► **Como entrenar a tu dragon.** Josu Murueta plazan. Ekainaren 18an, 22:00etan. Kalem eta doan.

► **Exposados.** Irailaren 23a plazan. Ekainaren 25ean, 22:00etan. Kalem eta doan.

BESTEAK

SOPELANA

► **Gaspe Asanbladaren Pilota Txapelketa.** Ekainaren 14tik 26ra.

► **Sopsex.** Kurtzio Kultur Etxean. Ekainaren 15ean, 18:00etatik 20:00etara.

► **Aurkezpena: Sopelana, herri baten aldiuneak** liburua. Kurtzio Kultur Etxean. Ekainaren 17an.

BARRIKA

► **Ikastaroa txirindulan ibiltzen ikasteko.** Ekainaren 17tik uztailearen 2ra, 16:00etan edo 18:30ean.

PLENTZIA

► **Araldiren ikasturte a jaia.** Goñi Portalen. Ekainaren 18an, 18:30ean.

GORTIZ

► **Euskararen eguna.** Iberrebarrin. Ekainaren 19an, egun osoan.

► **Gorlizko Mendizale Elkartearen txangoa.** Ekainaren 26an.

LEMOIZ

► **Euskeraz olgetan.** Urizarreko eskolan. Ekainaren 21ean eta 28an, 17:00etan.

BERANGO

► **Gaspelekuaren agur jaia, Berango gaua.** Gaspeleku, ekainaren 25ean, 20:00etan.

ERANDIO

► **Umeentzako aisialdiaren txokoa.** Altzagan, Astrabuduan eta Erandio Goikoan. Ekainaren 25etik uztailearen 30era.

► **Aholkularitza sexologikoa.** Drogomenpekotasuneko gelan. Ekainaren 25ean, 18:00etan.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



65 milioi urte

Nagusiak dira baina itxura ona daukate, ez dirudi 65 milioi urte dutenik. Askori beldurra emango diote, dinosauroak dira eta, baina ez dira batere arriskutsuak. Dinosaurio Parkea erakusketaren parte dira eta Areetako Evaristo Txurruka kaian ikus daitezke, urrira arte. Lehen bi asteetan, maiatzean, 11.000 lagun hurreratu ziren tamaina errealeko 16 erreproduzioak ikustera.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





GETXOKO UDAL LIBURUTEGIAK. UTZITAKO ARGAZKIA

Mamarro taldeko Jesus Maguregi atezaina

Ez dakigu inongo selekzioetan jokatu zuen eta ziur gaudete ez dela 2010eko Hego Afrikako Mundialean egongo. Mamarro taldeko atezaina zen Jesus Maguregi, eta jakin izan dugunez, *“Los Agustinos de la Union”* txapelketako irabazlea izan zen bere taldea. Argazkian erakusten duen harrotasunagatik, argi gelditzen da pozik zegoela erakutsitako mailagaz. Ez du gaur egungo futbol “izarraz” antzik, ez behintzat janzkerari dagokionean. Larruzko bota pisutsuak, ia bularreraino heltzen diren praka labur-laburrak... soldata astronomikoak jasotzen dituzten futbolarari “moderno” horiek horrela jantziak gero, hainbeste gol sartuko lituzkete? Ikusteko dago.

[berbetan]

Donapaleun bizi da aspaldidanik eta urte andana laguntzaile legez ibili ostean, azken bi urteotan EHZeko presidentea da Elixabet Aizager (Baiona, 1985). 15 urte beteko ditu aurton Iparraldeko barnealdean antolatzen den Euskal Herria Zuzenean (EHZ) jaialdiak eta urte hauetan guztietan enbata andanari aurre egiteaz gainera badu zer ospatu. Antolatzaileek esan duten legez urte hauetan guztietan: *“EHZ festibalean: 500 musika talde, 8.000 laguntzaile, 300.000 bestalari, 2.000 haur ernalduak oihal etxe azpitan, 100.000 kapota erabiliak, 50.000 amodio istorio...”*, baina askoz gehiago ere bada!

Elixabet Aizager

Iparraldeko deiadarra bozgorailuetatik

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **EHZ**

—Atzerabegirakoa lehenengo: hasierako 8 urteak Arrosan (Nafarroa Beherea), handik Indauze-Mendira (Zuberoa) 5 urteko egonaldia egiteko, eta iaz barrero Nafarroa Beherera, Heletara, hain zuzen. Aurtengo EHZ aurkezteko agerraldian esan zenutenez, *“belaunaldi aldaketak izan dira; garaiko antolatzaile ile luzedunak gaur egun haurrekin datoz festibalera; gaurko laguntzaile gehienek ez dute Arrosako garaia ezagutu. Baina erresistentzia eta alternatiba espirituak berdin dirau EHZen”*. Zelan ikusten duzu zuk?

—Atzerat begira... 15 urte ditu festibalak... Egia da, anitz aldatu dela; proiektua aldatu da, baina oinarri anitz atxiki ditugu: helburu bat zen Iparraldeko barnealdea berdinizatzea, kostaldeko jendea erakartzea barnealdera, hori helburutzat atxiki dugu; gero, festibal euskalduna egitea, edo euskarari eta euskal kulturari uztea bere tokia, hori ere bai atxiki dugu; festibal musikala ere atxiki dugu, alternatiboa bai ingurumen mailan bai laguntzaileen, zeren festibala laguntzaile-

ei esker bizi da; talde txikiei uzten diegu oraino bere tokia talde artista direnen ondoan... Erran dezakegu festibala garatu dela urtez urte eta erreleboa pasa dela, baina azkenean oinarritzat atxiki dugula 15 urtez zen festibala, eta horrek festibala azkarra egiten duela. Zer erran besterik? Bere gizartearekin garatu dela, baina berdintsua dela orain ere.

—Iazkoa berrikuntza urtea izan zen: estreinakoz Heletan, *“leku berria, hitzordu berria, festibal berria, nortasun bisual berria”* e.a.

“(EHZ) Proiektu bakarra da Iparraldean non denak elgarrekin lanean ari garen”

—Bost urtez egon zen festibala Xiberoan eta guk uste dugu zonaldeak, geografikoki, egiten zuela, urrun zelako, jendea ez zela hainbeste hurbildu. Eta orain, Heletara hurbiltzeak eta proiektu berri hori sortzeak erran nahi baitu formatu berria ekarri diogula festibalari. Herri batean sartu gira, lehen pentze baten gainean

egiten zen festibala, eta iaz Heletara hurbildu ginen, eta herriak ekartzen duen erosotasuna atzeman dugu, erran nahi baitu, anitz aski egitura atzemaiten ahal direla herrian bertan, zinema gela, trinketa, herritarren etxeak, ateak irekitzen dizkigute... eta horrek egin du guretzat festibal polizentrikoa, erran nahi baitu, festibalari etortzen ahal dela eta animazio anitz atzeman ditzakeela egunean zehar ber momentuan eta bere festibala eraiki dezakeela. Hori zen puntu positibo handia iaz, festibalaria festibalaren aktore

bilakatu da. Beste zer bait, aurten batez ere mezua landu dugu. Egia da, festibalak 15 urtez mezu anitz bere gain hartu ditu, eta narras-narras ezin dakion gehiago, zer zen, zerk definitzen zuen festibala... Beraz orain aurten proiektua berriz idatzi dugu, bi urtez proiektua berridatzi dugu eta mezuari utzi nahi diogu toki



handiagoa, esan nahi baitu: aurten komunikazio librearen ganean eztabaidak sortuko ditugu, jendea etorraraziko konferentziak egiteko, esposizioa egonen da, izanen da gune berezia non jendea elkar-tzen ahalko den eta elgarren artean hitz egiten eta praktikatzan ahalko duen...

—Aurtengoa 15. urteurrena, ospakizun urtetzat jo duzue; ezohiko iraupena dela adierazi arren, eta hori “espazifizitateari ere zor” zaiola uste duzuela. Gaur egun antzeko jaialdi erraldoiak nongura egi-tzen badira ere, EHZe badauka bere...

—Berezitasuna, bai. Errango nuke, beraz, laguntzaileen belaunaldiei esker lortu dugula 15 urtez irauten.

Bestalde, festibala da proiektu herrikoia, erran nahi baitu, inguruko jende eta aktore ekonomiko, sozial, eta kulturalekin lan sakona hasi genuela badu urteak, eta horrek dauka bere iraunkortasuna lorrazten. Bestalde, erran dezakegu festibala familia handia dela, eta proiektu inguru horretan alderdi guztietatik heldu dela jendea lan egitera, eta badela zerbait kimikoa bezala sortzen dena gure artean, festibalak gazte anitz hartzen dituelako bere inguruan eta proiektu bakarra da Iparraldean non denak elgarrekin lanean ari garen.

—“Munduko herrien bilgune goxoa guk dugu urtero hemen. Frantses, amerikar, espanol, eta israeldar har dezagun indar. Musika elektronikoa, gorribul eta droga, gau huntan zoriontsu da Euskal Herria. NB: goxa bijou! euskaraz manatzeko eskubidea utziko dizugu...”. Zirikatzaile-tzat hartu ditugu aurtengo jaialdia aurkezteko prentsa-oharrean irakurri ditugun berba horiek; asmo horregaz idatziak dira ala...

—(Kar, kar, kar) Hori da, zinez, ironikoa! Frantsesez ez da hala, arrunt beste zerbait erran nahi du. Edito hori egin dugu, zeren usu festibalak izaten ahal ditu kritikak, zeren gizartearekin batera garatzen gira, eta badakigu, ekonomikoki eta zailtasun anitz ditugu, eta baditugu hala ere,

beti, kritikak, zeren ez dakit, zabaltzen gira munduari, eta alde batetik baditu alde txarrak eta baikorrak ere bai. Beraz, guk, ironikoki, hor, edito hori nik idatzi dut, ez du festibalak idatzi, nik idatzi dut pixka bat sortzeko jendeari irria, irria sortarazteko, eta erakusteko festibalak bere arima atxikitzen duela; ironikoa da, arrunt ironikoa!

“Nik espres egin dut “maite amerikar, espainolak...”, baina hori ironiko-ironikoa da, eta mezu azkarra”

—Baina atzean bada beste irakurketa ere bai: euskal festibala dela, internazionalista... Horren atzean festibalaren izaera ere badago...

—Bai, bai. Baina erranen dizut, edito hori nik egin dut zeren baginen “Arrosako zolan” kantua. Ezagutzen duzu?

—Ez...

—1997an Aire Ahizpek sortu zuten kantua, eta han duzu “munduko herrien eta... bilgune goxoa guk dugu urtero hemen...”, eta baduzu “Bretoi ta kortzikar, kanak ta okzitandar, Nor bedera izaiteko har dezagun indar!”... Eta nik espres egin dut “maite amerikar, espainolak...”, baina hori ironikoa-ironikoa da, eta mezu azkar-azkarra. Baina asumitzen dut. Eta hara! Ezagutzen nauen jendeak irri handia ateratzen du... Ez ditut nahi ez espai-

“Indar gehiago hartzen dugu; eginen dugu kristoren festibala horientzat; merezi dute! Baina, zaila da egoera”

nolak ezta frantsesak ere, ene... Festibal euskalduna gira, bai!

—Aurrerantza begira orain, parez pare dugu EHZ2010, uztaileko lehenengo aste akabuan. Kontzertuei begira, “entsalada” polita prestatu duzuela iragarri duzue; egitarauari begiratzea baino ez dago horretaz konturatzeko. Ostera,

musikaz gainera, festibala beste esparru batzuetara ere zabaldu da: ikusgarri, antzerki, dantza, zine emanaldi eta bestelako ekitaldiak ere izango dira.

—Egia da, bi urte orain, Heletari esker lortu dugu herria berriz animatzen egunean zehar, animazioak proposatuz e.a. Eta, beraz, indar berezia emaiten du animazioak, giro herrikoi eta familiarra sortzeko

helburuan. Badu urteak eta urteak giro herrikoi hori edo familiarra atzemaiten ahal genuen igandez, zikiroaren proposamenarekin eta haurren txokoekin, eta hor bi egunetara pasa dugu; erran nahi baitu, jendea hurbil daitekeela bi egun horietan haurrekin, zaharrekin, giro ederra atzemaiteko... Atzemaiten ahalko dira pilota partidak, betiko zikiroa, Laborantza Ganbarak antolaturiko zikiroa, haurren txokoa, non haurrek izango dituzten puzgarriak, Surfrider Foundation-ekin ingurumenari buruz sentsibilizatu ahalko diren; dantza, antzerki... eta ondotik, jendearentzat izango da zinema gela non eztabaidak, bertso-trama, bi egunetan zehar filmak pasako dira gelditu gabe, eta jendea joaiten ahalko da zinema gela horretara... Antzerkian atzeimaten ahalko

dira: Le Kag, hori da frantses neska bikote bat, eroak direnak, pixka bat; ondotik Ander Lipusen “Ardoaz”; Le Petit Théâtre de Pain, Ximun Fuch-en “Juglarea, puta eta eroa” e.a. Txarangak eta karriketako musika ere entzuten ahal da... Egia da, indar eta inportantzia anitz emaiten diegula animazio horiei, egunean zeharreko

animazio horiei, zeren giro berezia pizten du egunean zehar, gero gau osoan atzeman dezakeguna.

—Bestalde, urtean zehar ere izango duzue lana. Zertan jarduten du EHZ elkartek?

—Lan asko! EHZ elkartek ez du nahi bakarrik festibaleko hiru egunetan mugatu. Bere helburuetarik bat da jendea sen-

“Hegoaldearen beharra dugu aitzina joaiteko; ahantzi gabe, Hegoaldean ere gure indarra behar dutela”

tsibilizatzea euskal kulturari, posibilitatea izatea musika berri bati irekitzea, eta dinamizatzea beti kultura mailan gertatzen ahal dena, eta batez ere gaztetxea. Beraz, aurten adibidez, hiru ekitaldi izan ditugu Itoiz Suite etorrarazi ditugu Miarriztera; ondotik, badu bi urte jada Elektrotasuna Gauak antolatzen ditugula, agian gaualdi horiek antolatuz jendeari erakusten diogu EHZ bizi dela, laguntzaileak heldu dira gaualdi horietara lan egitera, eta ondotik hiru egunetan ezagutzen gaituzte eta heldu dira ere bai proiektua sustengatzera, eta irten den bezala,

musika berri batzuei irekitzen ditugu edo proposatzen diegu gauza berri baten entzutea. Aurten Vitalic etorri zen, eta Vitalic internazional mailan biziki ongi ezagutzen da. Eta azkenean egin genuen ere bai, EHz lehiaketa, maketa lehiaketa; 66 taldek igorri dizkigute CD batzuk, Euskal Herri osotik, eta hiru hautatuak izan dira, eta Atabalen jokatu dute Berri Txarrak

aitzin, eta hor bat hautatua izan da, publikoak hautatu du joka dezan festibal denboran. Eta hor ere, ohartu gira elektromusika jendeak anitz maite zuela, eta irabazi duen batek elektromusika jotzen du. Horretan ari gira.

Gero urtean zehar, erran dezaket, 100 bat laguntzaile lanean ari girala, komisioka, eta bada administrazio kontseilu bat, non batez bestekoa 23 urteko gazteak dira, urte hastapenean proiektua berriz idazten dugu, berriz azaltzea biziki zaila da. Eta ondotik, hasten gira ber praktikan, hiru egunetako festibal hori prestatzen azkene-

an... Hara!

—Juhane Daskonek orain dela gutxi egin duen *Iparraldea XXI* dokumentalean ere parte hartu duzu, EHZko presidente legez, zelanbait Iparraldearen gazte ikuspegia eman asmoz. Ildo horretatik, zelan ikusten duzu gaur egungo Iparraldeko gazteria?

—Argi anitz erran dezaket, ikusten dudano, festibalaren inguruan mugitzen diren jendeak, gazteri zein gazteak, hor dira, eta erakusten dugu gazteria gai dela mugitzeko eta proiektu eder bat elgarrekin muntatzeko. Aldiz, iduritzen zaut Iparraldean, bai euskararen aldetik bai sentitzen den... hori niretzat, e... sentitzen den errepresio polizial hori biziki gogorra dela; etxebizitzena ere bai, biziki gaizki bizitzen da, gero eta karuagoak dira etxeak, ez dira gureak... Gazteria zailtasunetan da... Eta anitz, preso ekartzen dituzte. Adibidez, festibalean, berrikitan gure langilea hartu ziguten... Baina azkenean, sentitu da indar berezi bat non jendea mobilizatu den festibalaren inguruan. Eta, egia da, ber aldetik, indar gehiago hartzen dugula eta eginen dugula kristoren festibala horientzat, zeren merezi dute. Baina, zaila, bai, egoera. ○

Nork nori zer zor?

—Hegoaldeak, zoritxarrez, agian jakinmin gehiago dauka edota ezagutza gutxiago, Iparraldearekiko, Iparraldeak Hegoaldearekiko izan dezakeena baino. Hau da, horren albotik, galdera bera bi zentzutan: Zer zor du Hegoaldeak Iparraldeagaz? Zer zor dio Iparraldeak Hegoaldeari? —Zer zor digu Hegoaldeak? Nola zor? Hegoaldeari ez diogu ezer zor, eta Hegoaldeak ez digu ezer zor, nire ustez. Behar dugu biek batera lan egin, guk EHZen ahal bezainbat lan egiten dugu Hegoaldeko lagunekin, usu laguntzaile anitz hurbiltzen dira Hegoaldetik festibalera; bistan da, beti gehiago nahi

genituzke, baina... Gu gure ahaletan ari gira lanean Hegoaldearekin, ez dut uste zorrez hitz egiten ahal dugunik. Baina, bai, beharraz edo.

—Hori da, batak bestearen beharrez ere galdetzen nizan... Esan gura dudana da, berbarako, adibide bat jartzearren: Iparraldeko gazteria sarriago hurbiltzen da Hegoaldera, Hegoaldeko gazteak Iparraldera baino. —Gutxi datoz Iparralderuntz. Hori da gure arazoa. Hemengo handien arazoa da Iparraldea saltzen dutela... Edo, ez zaut iduritzen Hegoaldeko gazteriari irudi ona emaiten dietenik gure komunikabideek, edo gure aktore ekonomiko-

ek edo... Iduritzen zaut irudi hori biziki folklorea dela, eta azkenean, adibidez, EHZ bezalako proiektuak ez dituztela ezagutzen eta... Baina, Hegoaldeko gazteriaren indarra behar dugu, bai, urrunago joaiteko eta aitzina joaiteko...

—Bada, hori izan da dena. Gure aldetik, Uribe Kostatik Hazparnera, joan bedi gure esker ona eta espero dugu uztailaren 2tik 4ra bitarteko guztiak ondo irten daitezela, eta denok alkar goza ditzagula! Agian, baduzu beste zerbait esateko...


—Ahantzi gabe, Hegoaldean ere gure indarra behar dute aitzina joaiteko... (kar, kar).



DFko txakur bizitza

Izaro Glez. Ieregi (Getxo, 1987) gazte algotarrak Mexikon egin zuen Arte Ederrak ikasketako urte bete. Bertan, kamara eskuan ibili zen, Mexiko DFko kaleetan zehar, begiradak, unek eta guneak harrapatzen. Hona hemen Fotografia atalean aukeraketa txikia, beste batzuk ikus daitezke Algortako UK tabernan (Mariandresena 1) ekainean zehar bisita daitekeen erakusketan. *“Wuff-wuff, guau-guau, zaunk-zaunk”* izeneko erakusketan, Mexikoko hiriburuko errealitatea eta txakurren bizimodua lotu gura izan dute *“La Vegetables”* kolektiboko emakumeek (Glez. Ieregi eta kide bik osatzen dutena).

Argazkiak: **Izaro Glez. Ieregi**











BETIKO

IKASTOLA

GURE GAURKO
ETA BETIKO
IKASTOLA

- 0 eta 16 urte bitartean
kalitatezko hezkuntza
euskaraz.

- Ingelera 4 urteik.
Frantsesa DBHn.

- Zerbitzu ugari: autobusa,
jantokia, merienda,
zaintza.

- Eskolaz kanpoko
aktibitate ugari.

- Leioako Ikastolen
Elkartaren ikastola
bakarra.



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Tel: 94 460 70 84
ALGORTA

[zinema]

Film laburrak bultzatuz

Uztailaren 9ra arte zabalik dago **Kimuak 2010** programan izena emateko epea



Ahate Pasa (Koldo Almandoz) film sarituaren irudia. Informazio gehiago: www.kimuak.com

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak eta Euskadiko Filmategiak kudeatzen duten Kimuak programan parte hartzeko izena emateko epea uztailaren 9an itxiko da. Kimuak 2010 ekimenak 2009ko irailaren 30etik aurrera egindako eta 30 minututik beherako iraupena duten filmak hartuko ditu hautagaizat, eta "euska" errealizadoreei zuzenduta dago. Osera, ekimenaren oinarrietan hurrengo zehazten da: "errealizadoreak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi edo EAEn egoitza duen ekoiztetxe batek ekoizti beharko du film laburra. Proiektua zuzendariak aurkezten badu, EAEn bizi dela egiaztatu beharko du edo bertan 5 urtez jarraian edo 10 urtez tarteka bizi izan dela frogatu. Produktzio-etxeak aurkezten badu, EAEn egoitza duela frogatzeaz gain, bere osotasunean lanaren jabea dela edo koprodukzioen kasuan gutxienez %50en jabetza edo parte-hartzaileen artean jabetza handiena duela egiaztatu beharko du". Iaz legez, ez da beharrezkoa izango, halere kome-

nigarria da, lanaren kopia 35 mm-ko euskarrian aurkeztea.

Aukera onak eskaintzen ditu programak, horren adibide dira berbarako Kimuak'08rako hautatutako lanek bertako zein nazioarteko zinemaldietan egindako ibilbidea (ia 1.000 jaialditan erakutsi dira) eta jasotako sariak (guztira 163); edota Kimuak'09-ko 8 film labu-

«Kimuak09ko lanak ikusgai oraindik, besteak beste: *Ahate pasa*, *Amona Putz!*, *Marisa*, *El nunca lo haria*»

rrak, orain dela 9 hilabete hasitako ibilaldean, 300dik gora jaialditan izan dira eta ia 50 sari jaso dituztela. Kimuak09 osatzen duten lanak *5 recuerdos* (Oriana Alcaine; Alejandra Marquez), *Ahate pasa* (Koldo Almandoz), *Amona Putz!* (Telmo Esnal), *Dirty Martini* (Iban del Campo), *El nunca lo haria* (Anartz Zuazua), *Los que lloran solos* (David Gonzalez), *Marisa* (N. Vigalondo) eta *La Presa* (Jorge Rivero) dira. ○

Gospel kontzertua Getxon

Madagaskarreko haur abesbatzaren emanaldia hilaren 26an izango da



Ikusmen-urritasuna edo lan-esplotazioa jasan duten ume madagaskarrek osatzen dute abesbatza

Malagasy Gospel haur abesbatzak entzunaldia eskainiko du hilaren 26an, zapa-tua, Algortako Biotz Alai plazan. Arrastiko 19:00etan hasiko den emanaldira (doko-koa) hurreztatzen denak 40 bat ume madagaskararren ahotsek eskainiko dituzten gospel, reggae eta beraien herriko tradiziozko kantak entzuteko aukera izango du. Badira pare bat urte Agua de Coco eta A Toda Vela GKEek Malagasy Gospel abesbatzaren egitasmoa abiatu zutenetik eta orduetik hamaika lekutan eskaini dituzte aldarrikapenez betetako kontzertuak. Izan ere, taldea osatzen duten umeetako

askok ikusmen-urritasuna dute eta gaitzuntzekoek gatz-meatzetan lan-esplotazioa jasan dute. Horren albotik, ekimenaren helburua haur-eskubide unibertsalen aldarrikapena egitea da, besteak beste: haurrak lan egitera behartzen dituzten baldintza-egoerak salatzea eta urritasunen bat duten umeen gizarteratzea bultzatzea. Eta horretarako sortu dute ekimen kultural hau, kasu honetan Madagaskarreko umeen egoera euren ahotsetatik ezagutarazteko, eta bide batez haiei laguntzeko. ○

Informazio gehiago:
www.myspace.com/malagasygospel

diskoak

Cañon
Munlet
Gaztelupeko Hotsak



Elektronikaren eta rockaren artean ibili da Munlet taldea beti, elektronikaren bidez rocka egiten. 2003an sortu zuten taldea Ina Iriondok (*Herr Professor*) eta Anita Perezek (*Lady fingers*). Disko honetan gehiago landu dituzte gai sozialak: "Telebista piztu eta desastre hutsa da dena; baina ez gaude ezer salbatzeko, baina badugu zer kontatua".

Iheskide
Ihesbide
Musikherria



Elorriarren hirugarren diskoa da *Iheskide*. Abenduaren eta urtarrilean grabatu zuten Ondarruko Santos records estudioan, betiko lagunena eta hainbat kolaboratzaileen laguntzagaz. Aitortu dutenez, "eguneroko ogiak eta malaostiak inspiratuta, punk-rockaz gozatzeko, aldarrikatzeko eta kolpatzeko" bizi da taldea.

Arriskua maite
Kupela
Elkar



Elegante jantzi dira oraingoan erromeriaren erregeak. *Arriskua maite* hirugarren lanagaz datoz, *Gau Giro* eta *Pagotxa* aurreko diskoen arrakastaren ondoren. Larrañagak panderoa jotzen du, Zabalek trikititza eta Berastegik batera. Aurreko diskoetan bezala, bertsoa, trikititza eta euskal senek freskoena dakarte, umorez eta satiraz tindaturik.

Emon > *Piztu herria*

Oihane Sarasola, Aritz Alustiza, Ekaitz Otxoa, Isusko Igarza, Mikel, Ander Ariznabarreta, Joanes Iñurrieta, eta Oier Dominguezek osatzen dute Emon taldearen zortzikotea. Ibarra, Soralue, Elorrio, Bergara eta Plaentxiko taldekideek 2007ko udaberrian osatutako taldeak *Piztu herria* lehenengo diskoa plazaratu du orain dela hilabete eskas. 10 abestiz osatutako lana horrela aurkeztu du taldeak: "Emonen musika anitza da. Ska-reggae doinuak ditugu maite, baina baita cumbia, rock, funky edota beste edozein estilo... Gure jarrera garbia da, dena Emon nahi dugu. Hainbat gai kritikatu nahi ditugu, baina une ilunak ere ahaztu eta "carpe diem" oihukatu!"

Informazio gehiago: www.emon.tk

diskoa > Bordaxar laukotea

Jean Bordaxarren inguruan sortutako laukoteak *Zuzenean* (Elkar) diskoa kaleratu du. Jean Bordaxar, Jean-Pierre Luro, Robert Larrandaburu eta Jean-Noel Pinque zuberotar kantariak iaz Usurbilen eskainitako kantaldi batean grabatutako lana; kantak *a capella* abestutako dira eta Bordaxarrek sortutako zein kantu herrikoiez osatuta dago. Laukotea 1998an hasi zen alkarregaz kantatzen eta Bordaxarren berbetan abestietan «Zuberoako espiritua» agerian ipintzea zuten helburu. Lana, esan legez, Usurbilen abestutako kantek osatzen dute, baina laukoteak urtetan landutako kantu-otzara du eta jakinarazi dutenez disko gehiago grabatzeko aukera ez dute alboratzen.



Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkeztzen baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Vilamonta plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebia 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Komikiari gorazarrea

100x100komiki erakusketa ikusgai Bilboko Alondegian abuztuaren 20ra arte

Komikigile onenei gorazarre egin asmoz **100x100komiki** erakusketa ipini dute ikusgai abuztuaren 20ra arte Bilboko Alondegian (orain dela gitxi zabaldu dituzte udal ardandegi zaharraren erakin zaharbarrituak, aisialdi eta kulturagune bihurturik, ardoarena galdurik eta lurrin garestien usaina dariola).

AlhondigaBilbaoren eta Angulemakomiki jaialdi eta dokumentazio zentro frantsesaren arteko elkarlanaren bidez antolatu da **100x100komiki** erakusketa (sarrera: 3 euro) eta bertan dauden lanen aukeraketa Antonio Altarriba idazle eta komiki gidolariak egin du. Antolatzaileen esanetan, *"garai guztietako 100 komiki-"*

«50 lan klasiko eta horien gaineko 50 komikigile garaikideren irakurketak»

ki-orrialderik onenetakoak daude ikusgai". Izan ere, nazioartean entzutetsuak diren 50 komikigile garaikideri (horien artean 6 euskal herritar) maisulana begitantzen zaion komiki klasiko bat edota maisutzat duen egile bat aukeratzeko eta horiei gorazarre egin asmoz euren bertsioa, jarraipena edota parodia sortzeko eskatu zieten. Hala, 50 bikotek osatzen dute erakusketa: 50 lan "klasiko" eta horien gai-



Informazio gehiago: www.alhondigabilbao.com

neko 50 komikigile garaikideren irakurketak bana. Komikigile edo lan omenduen artean daude: Winsor McCay, Alex Raymond, Milton Caniff, Burne Hogarth, Alberto Breccia, Hugo Pratt, Robert Crumb, Moebius, Charles Burns, Jessica Abel, Lorenzo Mattotti, Paco Roca, Mauro Entrialgo, Max, George Herriman (*Krazy Kat*), Will Wisner (*Spirit*), Chester Goul (*Dick Tracy*), A. Franquin (*Spirou*), A. Uderzo (*Asterix*), *Mortadelo y Filemon* famatuak edo Lewis Trondheim. Erakusketarako aukeratu dituzten euskal egileak Raquel Alzate, Santi Orue, Mikel Valverde, Javier de Isusi eta E. Murillo dira. ○

liburuak



Gauaren sakonean
Haruki Murakami
Erein

Tokion gau bakar batean gertatutako istorioa. Pertsonaiak nahastu eta euren sentipenak kontaktatu dizkigu Murakamik. Errealitatea eta ametsen mundua maisuki nahastuta. Urruneko kontakizuna euskaraz irakurtzeko aukera ematen du itzulpen honek.



Pirata ausartak
Mitxel Murua
Elkar/Katxiporreta

Aski ezagunak dira etxeko txikien artean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak. Oraingoan pirata eta marinela bihurtu beharko dira Patakonen laguntzagaz. Mitxel Muruak idatzi du *Pirata Ausartak* ipuina eta Julen Tokero ilustratzaiaz arduratu da.

[kirola]

Bost kirol campus Getxon

Errugbi, saskibaloia, eskubaloia, gimnasia erritmiko eta futboleko hainbat kanpus



Aurreko urte bateko Getxo Saskibaloia kanpuseko argazkia

Udalerriko zenbait kirol taldek Getxo Kirolak erakundeagaz elkarlanean hil amaiera honetarako hainbat kirol kanpus antolatu dituzte. Oro har, saskibaloia, errugbia, eskubaloia, gimnasia erritmikoa eta futboleko kanpusen eskaintza egongo da eta arduradunek jakinarazi dutenez parte hartzeko lekuak mugatuak dira. Kirolez kirol: Getxo Saskibaloia Taldeak prestatu dituen 3 kanpusak ekainaren 23tik 30era izango dira (09:00-14:30 edo 18:00 arte). 4-13 urte bitarteko ume-gaztetxoei begirako topalekuak dira eta 8 edo 10 egun arteko eskaintzaren artean aukera daiteke. Gobelak Kiroldegian edo Romo ikastetxean egingo dira eta prezioa 110 eta 150 euro artekoa da (gosaria eta bazkaria barne).

Gimnasia Erritmikoari dagokion kanpusa Gimnasia Klubak antolatu du eta hilaren 24tik 30era (09:30-13:30) emango du. 5 eta 16 urte bitartekoentzako topalekuak 35 euro balio du klubeko bazkideentzat, 70 euro Getxo Kirolakeko bazkideentzat eta 85 euro gainontzekoentzat.

Eskubaloia kanpusa (hilak 24-25 eta 28-30; 08:45-14:00) Gobelan eskainiko

da eta 6-14 urtekoei zuzendutako kanpus horren prezioak hauek dira: 70 euro bazkideentzat eta 80 euro gainerakoek.

Aurpegi ezagunek apaindurik dator futbol kanpusa. Izan ere, Athleticeko jokalari ohi Rafa Alkorta eta Patxi Ferrerak gidatuko dute hilaren 24tik 30era arteko topalekua. 6-15 urte arteko gaztetxoei zuzendutako kanpusa Faduran egingo da eta ordutegi bi ditu: 09:30-14:00 (110 euro) eta 09:30-18:30 (200 euro).

«Aurpegi ezagunek apaindurik dator futbol kanpusa»

Amaitzeko, hilaren 28tik uztailearen 16ra bitartean (09:00-14:00) eskainiko du Getxo Rugby taldeak kanpusa Faduran. Kanpuseko aste batek 100 euro balio du, bik 180 euro eta hiruk 240 euro. ○

Informazio gehiago: www.getxo.net
Futbola: www.campusmultideportivo.com
www.getxobasket.net / 662940474
getxorugby@getxorugby.org
club_ritmica_getxo@hotmail.com / 665733557
clubbalonmanoromo@euskalnet.net / 946081888

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA KIROL MODA



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXEO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, S.L.



Tf. 94 430 52 00 Kasirne 18 - ALGORTA

Irene Pardo > Bizkaiko Nekazaritza ahaliduna

“Animalia gehienak gizakien jardueraren eraginez sartzen dira Gorlizko zentrorra”

Hamar urte bete ditu Fauna Basatia Sendatzeko Zentroak. Gorlizen dago, eta urteurrena ospatzeko, hainbat animalia itzuli zituzten basora, osatu ostean. Gainera, zentroari buruzko liburua argitaratu dute. Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza sailaren baitan dago zentroa, Irene Pardo da Nekazaritza ahaliduna.



la 3.000 animalia sendatu eta itzuli ditu zentroak beren habitat naturalera

—Zentroari buruzko argazki-liburua argitaratu du Aldundiak, zergatik?

—Nekazaritzako Foru Sailak atera du zentroaren hamargarren urteurrena dela eta. Hori ospatzeaz gain, instalazioetan egiten den lana, sartzen diren animaliak eta ezartzen zaizkien tratamenduak, eta mota horretako zentro baten barne funtzionamendua ezagutzera eman gura dugu. Liburua aurkeztu genuen eguna aparta izan zen, animaliak askatzeko ekitaldia egin genuen eta zegokien habitat naturalera itzuli ziren.

—Zer azaltzen du liburuak?

—Liburuak espezieak sendatzeko eta dagokien ingurune naturalean barrero sartzeko urratsak erakusten ditu, animaliak jasotzeko protokoloetatik hasita askatzen diren arte. Hori guztia balio handiko argazkiakaz, edertasun handikoak dira eta gutxitan ikus daitezkeen fauna basatiaren aldeak erakusten dituzte.

—Ia 3.000 animalia sendatu eta naturalera itzuli dituzte urteotan, baina askoz gehiago tratatu dituzte, ezta?

—Zentroa 1999an zabaldu zenetik, 2.574 uretako hegazti, 1.097 eguneko hegazti harrapari, 567 gaueko hegazti harrapari, 965 paseriforme (zozoak, karnabak...), 65 espezie aloktono eta 43 narrasti eta beste espezie batzuk (iguana,

baranoa, tarantula...) sartu dira zentroan. Orokorrean, 6.110 hegazti, 1.067 ugaztun eta 565 narrasti.

—Askok sendatzen dira?

—%90 gutxi gorabehera. Zentroak dituen 10 urteen balantzea oso positiboa da, 2.842 animalia baino gehiago sendatu da. Argitu beharra dago, zentrorra sartu diren 7.742 animaliatatik, 3.040 hilda iritsi direla instalazioetara. Hau da, sartu diren animalien ia %40.

“Zentroan sendatu ondoren, habitat naturalera itzultzen dituzte, beren biziraupena bermatzeko modu batean”

—Sortu zenean, ordura arteko jardueren norabidean aldaketa handia ekarri zuten, zergatik?

—Gure espezieen kontserbazio-lanetarako paper garrantzitsua betetzen du zentroak, hori izan zen nire ustez ekarpenik handiena; basapiztzentzat ospitale antze-

koa da. Naturan bere kabuz ezin dira bizi, eta erreskatatuko ez bagenitu, hilko liriteke. Animalia gehienak gizakien jarduera zuzenaren eraginez sartzen dira, eta horregatik, errehabilitatzeko konpromiso moral, sozial eta legalari eusten dio Aldundiak.

—Nola Funtzionatzen du zentroak?

—Zaurituta, mugitu ezinik edo gaixotasun zantzuak dituzten animaliak aurkitu ondoren hasten da lana. Basozainek egi-

ten duten zaintza zerbitzuaz gain, hilero 80 dei inguru jasotzen dira animalia gaixoen barri emanaz. Basozainak zein Base Gorria animaliak erreskatatzera edo jasotzera joan ohi dira. Zentroan haien egoera aztertzen da eta dagokien tratamendua ezarri. Sendatu ondoren habitat

naturalera itzultzen dituzte, beren biziraupena bermatzeko modu batean. Gainera, diziplina anitzeko taldea dauka zentroak, eguneko 24 orduetan larrialdietaz arduratzeko. Bestalde Bizkaiko animalien egoera, biologia, portaera eta izan ohi dituzten gaixotasunak ebaluatzen ditu, baina batez ere, gizakien jardueraren ondorioz, bertoko faunak jasan behar dituen mehatxu nagusiak aztertzen ditu. Era berean, espezie berreskurazionak gatibu haztea sustatzen da eta txitak populazio-bajak hauteman diren lekuetan askatzen dituzte, populazioa birsortzeko eta espeziea desagertzea ekiditeko. —Herritarren parte hartzea ahalbidetzen duzue, zergatik eta zertarako? —Arrazoi bik eroan gaituzte jendearen laguntza eskatzera. Batetik, edozein pertsonak aurki dezakeela laguntza behar duen animalia bat basoan, errepidean...

Garrantzitsua da eurek ere abisuak ematea; izan ere, Nekazaritza saileko langileak ez daude uneoro bazter guztietan... Bestetik, jendearen parte-hartzeaz garrantzitsua da. Sarritan gertatu da zentrorra animalia bat eroan duen norbaitek animalia hori nola sendatu den ikustera joan gura izatea, horrek

promiso handiagoa; kontzientzia handia dago gaur egun. Liburua aurkeztu genuenean hogeita hamar urteurrenaren zentrorra, hegaztiak askatzeko ekitaldian parte hartzeko. Aukera paregabea izan zuten naturari buruzko eskola bat jasotzeko gelatik kanpo eta oso baliagarria izan da ikasleak gure espezieak sen-

“Garrantzitsua da sentsibilizazio lana; nabari da jendearen konpromiso handiagoa, konpromiso handia dago gaur egun”

bete egiten zaitu, poztasun handia da. —Beharrezkoak dira herritarrek sentsibilizatzeko programak? Eta eraginkorrak?

—Eraginkorrak baino beharrezkoagoak direla esango nuke, tamalez. Garrantzitsua da alor horretan lan egitea, eta apurka-apurka, nabari da jendearen kon-

datu eta dagokien ingurune naturalera itzultzeak duen garrantziaz kontzientziazteko. Zentroaren hamargarren urteurrena ospatzeko ekitaldi horretan hontzak, belatz bat, trikuak... askatu genituen. Neska-mutikoen askatzean parte-hartzeko eta espezie horien zenbait ezaugarri ikasteko aukera izan zuten. ○

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....

Kalea & zenb.....Herria.....

e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37

Loli Hernandez > Arrigunaga

“Zer gelditzen zaigu haurtzaroko lekuak galdu ditugunoi? Niri Arrigunaga”



“Galdu zen Aingeruaren ermitako kioskoa, igandeetan mezatetik bueltan kukurutxodun izozkia erosteko”

Nora garamatza begiradak denboran atzera egiten dugun bakoitzean? Nora garamatza oroitzapenen bideak? Gomuten gotorleku ezkututik azaltzen dira gure bizitzako txokorik liluragarrien bila. Baina urteekin leku horiek galdu egiten dira, eta inon oroimen aztarnetan baino ez badira gelditzen, Andra Marin da eta batez ere, Behari aldean. Umetan ezagutu, bizi eta gozatutako bazterrak, non daude gaur? Non Benanzio ingurukoak? Non Basanta etxetzarra, non Ibeta eta Piñaga baserriak, non inguruko oilarretxe bitxi haiek? Non Piñaga erdiko Demetrioren traktorea?

Non dago Mardaras denda, non lehenengo jogurtak (denak danoneak zirenak) eta sardina galego kutxa biribilak? Non

aurreko mahasparrak eta harrizko jesarlekua, instituturako bidean geldigunea zena? Non geltoki zaharra hiriburura eramaten gintuen trena “eta hamarrea” hartzeko, non Manolisen dendan zegoen salmahaiaren kristalak gure begien aurrean deskubritzen zuen altxorra: botoiak, arrakadak, eskuak leuntzeko Famos krema edo beste purtxilerien artea zegoen puruen kutxa, kromo dirdiratsuak gordetzen zituen? Non Malakatean noizero biltzen ziren iji-toen gurdiak? Non dago kooperatibaren denda zapatu goizetan libreta larrosa esku-etan amamarekin joateko? Non gure aurrean tentagarri azaltzen ziren latoizko kutxako askotariko gailetak? Non bakailoa ebakitzeko tramankulua? Non mostradore

luzanga, metrotan saltzen ziren oihalak zabaltzeko? Non Pacoren denda eta han nahasten ziren hamaika usain desberdinak?

Galdu zen Aingeruaren ermitako kioskoa, igandeetan mezatetik bueltan kukurutxodun izozkia erosteko. Galdu ere haraino urrian egiten zen prozesioa eta neskatxoek aingeru jantzirik petaloak botatzea ere. Zer gelditzen zaigu haurtzaroko lekuak galdu ditugunoi? Niri, Arrigunaga hondartza. Eraldaturik, bai, korroneak utzitako hondakinen jalkinak sortu zituen xafiak estalirik eta itsasoaren higatutako beirazko harribixirik gabe, baina hortxe dago, nire eta etxeko haurtzaro eta gozamenaren lekuko. Hari esker, badakit txikitako oroitzapenak inoiz egia izan zirela. ◯

Katilu Taberna

Bete egizu katilua familia giroan



Katilu tabernako lagunak

Katilua bete eta kafetxoa hartzeko gogorik bai? Horrela bada, Euskal Herria kaleko 7. zenbakira hurrera zaitzke. Hilaren 7an zabaldu zuten Maria Ortega eta Sara Innerarity algortarrek *Katilu taberna*. Orain urte bi lokala ikusi eta aurrean, barriz ere hutsik zegoela ikusita, zabaltzera animatu dira. Margotu, argiztapena aldatu eta tresneria aukeratu ostean (izenari men eginez katiluak erabiliko dituzte kafeentzako), gogotsu jarri dira martxan. Ortégak 10 urte daroa ostalaritzan eta Innerarity 25 urtetik gora salmenten arloan; esperientzia ez zaie falta.

Eskaintzari buruz galdetean, argi daukate zer izango den garrantzitsua: “Prezio onak, kalitatea... baina, batez ere, tratu adeitsua, irribarreak eta bezeroak gustura egoteko giroa”. Herrian ezagunak

direnez ez dute uste zaila izango denik: “Familia giroa sortu gura dugu. Taberna atontzen egon garenean, zabaldu aurretik, gauzez egin dugu behar; egunez lagunak hurbildu eta ezinezkoa zen behar egitea”. Tabernari bizia emateko asmoa ere badute: jai tematikoak, bakarrizketak, musika akustikoa, kantautoreak e.a.

Pintxo hotzak eta beroak izango dituzte, ardoa eta edariez gain. Goizean goiz zabaldu eta iluntzera arte egongo dira: “Goiz eta arrastiko eskaintzan jarri gura dugu indarra”. Hala ere, asteburuetan gauzez tragoak hartzeko aukera egongo da: “Ordu bi eta erdiak arte, gutxi gorabehera”. Katiluko lagunak partez askoz gehiagorik ez: “Jendea hurbiltzea eta ondo pasatzea gura dugu, besterik ez”. ◯

Euskal Herria 7, ALGORTA
Tf. 633 310 011

ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Erakina. Gabele erabiltzen auzoan • LEIOA

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaketan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

GOZOLABEA

GALDARETXE

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Telletxe 13, ALGORTA Tf. 94 491 51 44
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 52 58

Toponimoa > Arrigunaga

Ahoz: Arrune (baserria) (Etxebizitza, hondartza eta inguru):

Argi dago Arrune izena Arrigunaga-tik atera zela, baina deigarria da hondartza izendatzeko izen osoa erabiltzen bada ere, Arrigunaga, etxea izendatzeko aldaera laburtua erabiltzea, Arrune. Gertaera honen arrazoia ofizialtasuna eta idatzitakoaren garrantzian datza: baserriaren izena ahoz aho ibili da mendez mende eta hondartzarenak, ostera, maila ofizialagoa izan du. Izenaren osagaiak argiak dira: harri, gune eta -aga atzizkia. Arrigunaga etxea zaharra da eta oso ongido ageri da XVII. mendeko dokumentazioan 1612tik aurrera, baina deitura ere badenez XVI. menderako bazegoela esan dezakegu. Dokumentazioan Arrigunaga moduan ageri da 1946 urte arte.

Udako ikastaroak Uribe Kostako AEK

Mihi puntan duzu

- IKASTARO TRINKOAK
- MAILA OFIZIALEK ETA EGA
- 2 ASTEKO BARNETEGIAK
- FAMILIENTZAKO BARNETEGIAK
- BARNETEGI IBILTARIAK

www.aek.org | 902 36 22 94

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Auziluz z.g. • T.E. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangoberri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA **HARTU TXANDA**

GOIZEAN
"Gozaki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Fruin lehorak - Almiakariak - Lisomariak
Orduña Mendatea 1 Toletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia

Usategi parkea z.g.
Algorta
*Tf. erroberak: 94 460 64 13


[horoskopoa]

<p>URA ◆ (Abenduak 21 urtarrilak 19) Zakarregia zara eta askotan ingurukoie min egiten diezu jarrera horregaz. Agian horregatik sentitzen zara horren txarto zeure buruagaz. Zure akasetatik ikasi eta saiatu ez erreplikatzin.</p>	<p>OTSOA ◆ (Urtarrilak 20 otsailak 18) Hau izan liteke zure bizitzako udarik zoragarriena; magia betetako gauak bizitzeko aukera izango duzu. Eragozpen bakarra: zaindu zure patrika, eskuzabalegia zara eta.</p>	<p>ADARRA ◆ (Otsailak 19 martxoak 20) Ate bat zarratzen denean beste bat zabalzen ei da. Erne egon zaitez eta aditu zure ingurua; ezuste bat baino gehiago izango duzu. Kontuz eskatzen duzunagaz, lor zenezake eta.</p>
<p>AITZURRA ◆ (Martxoak 21 apirilak 19) Oporrak hartzeko aukera baldin baduzu, konplexu barik har itzazu. Oso lanpetuta ibili zara aspaldian eta merezi dituzu. Apur bat lasaituz gero, senideakaz momentu gozoak biziko dituzu.</p>	<p>HOSTOA ◆ (Apirilak 20 maiatzak 19) Buruaz gain gosea ere galtzen ari zara ezagutu duzun pertsona horren eraginez. Kontuz, dena eman aurretik berak zukanak interesa duen jakin beharko zenuke; atsekabea hartu baino lehen.</p>	<p>EGUZKIA ◆ (Maiatzak 20 ekainak 18) Zure inguruko pertsona bat zoratzen ari da zure arreta lortu guran, baina iraganeko gertakizunek itsutu egiten zaituzte. Jarrera horregaz, sor litezkeen aukerak galduko dituzu.</p>
<p>GARIA ◆ (Ekainak 19 uztailak 18) Apurka-apurka asmo barriak loratzen hasi dira zure barnean. Udabarria garai oso ona da kalera ateratzeko eta jende barria ezagutzeko. Alferkeria alde batera utzi eta gozatu uneaz.</p>	<p>LASTOA ◆ (Uztailak 19 abuztuak 17) Batzuetan barkamena eskatzea beharrezkoa da, batez ere maite dituzun pertsonak erdian daudenean; ez zaitez burugogorra izan. Lan arloan, orain arteko jarrerari eutsi.</p>	<p>IRATZEA ◆ (Abuztuak 18 irailak 16) Aukera ezin hobea zure laguna aurkitzeko. Badakizu jaiak mesedegarriak direla horrelako egoerak zuzentzeko, edo behintzat, larritasunak apaltzeko. Hori bai, zaindu zure burua.</p>
<p>META ◆ (Irailak 17 urriak 16) Lasai, txarto ateratzen diren gauzek beti dute konponbideren bat eta. Ez zaitez larregi estutu eta kontrolatu zure umore txarra, senide eta lagunien pazientziagaz amaitu gura ez baduzu.</p>	<p>HAZIA ◆ (Urriak 17 azaroak 15) Ez zaitez horren harroputza izan: egia da azkenengo bolada honetan gauzak ondo baino hobeto atera zaizkizula, baina egun guztiek daukate bere gaua; ez egizu zapuztu aldarre txarragaz.</p>	<p>NEGUA ◆ (Azaroak 16 abenduak 20) Astialdi ederra bizitzen ari zara, eta gainera, hurrengo egunetan gauzak hobera joango dira. Arazo txikiak sortuko dira bihotzeko kontuetan, baina ez eman gauzei behar baino garrantzi handiagoa.</p>

Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO KIVETZ GARATE AZURMENDI
Negutiko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (gaurra, Jata Mendia) T. 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Garaizar barrikuntzak
• igeltsaritza orokorrean
• etxebizitzak eta lokalak
• gremioak
Tf. 944 430 92 43 / 607 982 877 • reparacion@vunkal.net
Etxe kalea 1 • ALGORTA

Koskakideak behar ditugu
Bidali zure datuak
posta elektronikoko edo
posta arrunt bidez
KOSKA
irratia 108 fm
12€ urtean !!
€1 hilean !!
koskairratia@koskairratia.com
k/ Arneri 6 4. pisu 2. dep.
Algorta (Bizkaia)
www.koskairratia.com



» BEGIRIK KENDU GABE:



Bila itzazu "H" hizkiak hasten diren 10 elementu, gutxienez.

ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Iparraldeko zein musika jaialdi zuzentzen du Elixabet Aizagerrek?

> Aurrekoaren erantzuna: Getxo akordaten naz 2

> Irabazlea: **Aimar Hidalgo***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Desagertutako zein espezie beldurgarri ikus daiteke albumean?

- **Portu zaharreko korrokoiak**
- **Dinosauroak**
- **Andra Mariko herensugeak**

> Aurrekoaren erantzuna: Armintza

> Irabazlea: **María Barrena***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA **Usategi**
kafetegia

Usategi parkea z.g. Algorta
Tf. erreserbak: 94 460 64 13



SARIA **La Gusana**
liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12

lagusana

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



ANGEL INTXAUSTIK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ALGORTAR LAGUNTALDEA "ELORRIKO BANKU" AN, 1957AN

Antza denez honela deitzen zioten algortarrek gaurko Elorri eta Sarrikobaso kaleek bat egiten duten lekuan zegoen banku bati. Argazkia atera orduko lagun hauek Berangoko frontoian izan ziren; bertan esku pilota norgehiagoka, taldeko biren (Ramon Arteta eta Emilio Rasines) eta beste algortar biren (Josu Sarria(GB) eta Jose Ramon Salaberri) artekoa, azken hauek 22- 18 irabaziz. Gero, askaria: arrautzopilak, piper berdeak eta ardoa; bakoitzak 23 pezeta. Gaur egun ere urtero batzen dira lagunarteko bazkaria egiteko ekainaren 2an, eta beti, estreinatu zenetik, "Cubita Aixerrota" jatetxean. ○

1. **lerroa:** Angel Gomez "Txino" (GB), Ramon Arteta, Anton Camiruaga (GB), Bernardo Atejada, Javier Lejarcegui, Jose Ramon Artola (GB).
2. **lerroa:** Alberto Sasia, Javier Sarria (GB), Jesus Mari Azkorra, Joseba Etxebarrieta (GB), Kike Prieto.
3. **lerroa:** Jokin Garate, Emilio Rasines, Angel Intxausti, Roberto Mardaras (GB), Iñaki Sarria.

[aitormenak]

MIKEL UNZURRUNZAGA > DJ Makala

“Orain besteek parranda egiteko pieza bat gehiago naiz”

Testua: Zuberoa Iturburu Argazkia: Makala



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Batez ere, melomano hutsa naiz; musikarik gabe ezin naiz bizi.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Txantxa bat egitearren, *King Kong* filman.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Astronauta. Musikarekin lotura izan behar du, eta nire kasuan, musika egiten dudanean, espazio-ontzi bat gidatzen dudalako ikuskera daukat.

Txikitan zer izan gura zenuen?

Txikitan ere astronauta, garai hartan gizakia ilargira iritsi zen eta modan zegoen.

Beraz, aitor dezakezun bizio bat?

Surfa, txikitatik praktikatu dut, Zarautzen hondartza parean jaio nintzen. Baina musika berria aurkitzea ere bada bizioa.

Eguna ala gaua?

Biak, baina bat aukeratzekotan, gaur egun, eguna.

Zerk ematen dizu beldurra?

Agian errusiar mendia barrakak, gehiago naiz zaldiko-maldikokoa.

Errepikatuko zenukeen bidaiarik badago?

2001ean La Habanan egon nintzen eta itzultzeko kristoren gogoa daukat.

Zein da zure ametsetako bat?

Nire lanagaz bost kontinenteak zapaltzea eta emanaldiak egitea.

Parrandarik politenak non?

Aspaldi ez dut parrandarik egin. Orain parranda egiteko pieza bat gehiago naiz; parranda biribiltzen dut, parranda besteei eskaintzea da zeregina.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Baztan, txikitan eskolara ere bertan ibili nintzen. Eta Zarautz: hondartza eta itsasoa ezinbestekoak ditut, ez nituzke ezeren truke aldatuko. ○

LABURREAN— Udan lanez gainezka ibili ohi dira musikariak, baita Dj Makala ere (Zarautz, 1970). Leioako jaietan arituko da ekainaren 25ean, *Happy Sound* biraren baitan. Afroamerikar doinuek betetzen dute bere errepertorioa, doinu dantzagarriek: jazz, soul, hip-hop... eta azkenaldian, musika tropikala. Agenda beteta dauka, eta laster, Alemania eta Belgika bisitatzeko asmoa dauka. Baina berak ez du uste arrakasta kontua denik. Harremanak edukita eta gura izanez gero, emanaldiak atera ateratzen ei dira, eta interneten laguntzaz, errazagoa omen da hori lortzea. Musika jartzea du ogibide orain hamar urte, eta aberastuko ez bada ere, gustukoena egiten dihardu.

Euskaraz lan egiteak motibazioa pizten du

bai
euskarari

Euskaraz kirola gehiago gozatzen da

Euskaraz aritzeak konfiantza ematen die bezeroei

Euskaraz negozio hobeak egin daitezke

1.500 entitate baino gehiago ziur daude

10 urte

ziurtagiriaren **elkartea**



902 43 00 26 / 05 59 25 50 41 baieuskarari.org

balioa eta berrikuntza



XXII

Getxo & Blues

Getxoko Nazioarteko Festival Internacional
Blues Jaialdia de Blues de Getxo

EKAINA 2010 JUNIO

OSTRALA 18 VIERNES

21:00 h.

ERIC SARDINAS & BIG MOTOR
Artista invitado: RAIMUNDO AMADOR

LARUNBATA 19 SÁBADO

21:00 h.

BETTYE LAVETTE

23:30 h.

JAM SESSION con BLUES DE LUXE
The Piper's Irish Pub
(Dohalnik / Gratis)

IGANDEA 20 DOMINGO

20:00 h.

MUSIC MAKER FOUNDATION

Dr. Burt (primitive guitar playing & haunting vocals)
Pat Cohen (powerful voice)
Eddie Tigner (piano)
Beverly Watkins (rockabilly-blues)
Tommy Brown (Atlanta blues singer)
Lil' Joe (trombone)

MUSIC MAKER HOUSE RYTHMIC SECTION

Sol Creech (bass)
Hardie Dean (drums)
Albert White (guitar)

BLUES



BIOEZ ALAI PLAZA
(ALGORTA)

SARRERA / ENTRADA: 5 €

Saleros salmenta
venta de entradas

www.getxo.es
7 544 333 330
www.bbk.es
bbk

bbk



metro bilbois

Getxo
MUSICA - ENTRETENIMIENTO

Getxo
MUSICA - ENTRETENIMIENTO

Getxo
MUSICA - ENTRETENIMIENTO

BFA DFB
MUSICA - ENTRETENIMIENTO